

Hernaniko Udala



Hernanin kirol arloan emakume eta gizonen
egoeraren Diagnostikoa
eta
hobetzeko Plana



Hernaniko kirol arloan emakume eta gizonen
egoeraren Diagnostikoa



AURKIBIDEA

1. Sarrera	10
2. Helburuak eta metodologia	12
3. Hernaniko kirol arloan emakume eta gizonen egoeraren azterketa.....	15
3.1 Udal Kirol Patronatua (UKP)	15
3.1.1 Egitura.....	15
3.1.2 Udal instalazioak.....	20
3.1.3 Diru-laguntza politika.....	28
3.1.4 Mintzaira eta sexismoa UKPn	34
3.2 Partaidetzako kirola	36
3.2.1 UKPren abonuen eta jarduerak	36
3.2.2 Kiroldegiko instalazio libreetako erabilera	49
3.2.3 UKPz kanpoko partaidetzako kirola.....	51
3.3 Errendimenduko kirola	53
3.3.1 Elkarteak, lizentziak eta kategoriak	53
3.3.2 Hernaniko elkarteetan emakumeen egoerari buruzko pertzeptzioa.....	62
3.4 Eskola kirola	65



4. Kirol jardueraren hastapena eta uztearekin zerikusia duten aldagai sozialak.	76
5. Ondorioak	82
6. Bibliografia	88
ERANSKINA.....	90

TAULA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

TAULAK:

1. Proiektuan erabilitako informazio-bilketa teknikak	13
2. Hernaniko biztanleria 2005 adin-taldeen arabera	15
3. Udal Kirol Patronatuaren egungo egitura	16
4. Hernaniko udal kirol-instalazioak.....	20
5. Hernaniko kiroldegiko instalazio espezifikoak	21
6. UKPren gastuak Kapituluaren arabera	28
7. UKPren 2006ko gastua IV –transferentzia arruntak- Kapituluaren	29
8. Elkarteei emandago diru-laguntzak. 2004/2005 Denboraldia	32
9. UKPren abonua kopurua 2006 adina eta sexuaren arabera	37
10. UKPtik eskainitako jarduerak eta partaidetza 2006	40
11. Helduen partaidetza 2006/2007 ordutegia eta sexuaren arabera	44



12. Hernaniko kirol elkarteak eta federazio-lizentziak	53
13. Federazio-talde kopurua esparrua eta sexuaren arabera.....	59
14. Federazio-talde kopurua kategoria eta sexuaren arabera	60
15. Hernaniko eskola kiroleko programa 2006/2007	66
16. Hernaniko eskola kiroleko programako partaidetza kategoria bakoitzeko biztanleria eta sexuaren arabera	67
17. Eskola kiroleko partaidetza Gipuzkoan kategoria bakoitzeko biztanleria eta sexuaren arabera	69



IRUDIAK:

1. Hernaniko biztanleria adin-taldea eta sexuaren arabera	16
2. UKPn emakumeek dituzten lanpostuak.....	17
3. UKPn gizonek dituzten lanpostuak.....	18
4. UKPko emakumeen eginkizunak	18
5. UKPko gizonen eginkizunak.....	19
6. Kiroldegiko pisten asteko banaketa.....	24
7. UKPren 2006ko aurrekontuaren ehunekoa Kapituluaren arabera	28
8. UKPren 2006ko transferentzia arrunten ehunekoa	30
9. Elkarte bakoitzari emandako diru-laguntzaren ehunekoa. 2004/2005 denboraldia	33
10. UKPn abonua duten banakoen ehunekoa sexuaren arabera.....	37
11. 2006 abonua kopurua adin-taldeen arabera	38
12. 2003z geroztik kiroldegiko sarreren erregistroa.....	39



13. UKPko jardueretan emakumeen partaidetza 2006/2007	41
14. UKPko jardueretan gizonen partaidetza 2006/2007	42
15. 2006/2007ko jardueretan partaidetzaren erkaketa sexuaren arabera	43
16. 2006/2007ko partaidetzaren erkaketa ordutegia eta sexuaren arabera.....	45
17. Emakumeek goizean egiten dituzten jarduerak.....	46
18. Emakumeek arratsaldean egiten dituzten jarduerak.....	46
19. Emakumeek gauean egiten dituzten jarduerak	46
20. Gizonek goizean egiten dituzten jarduerak.....	47
21. Gizonek arratsaldean egiten dituzten jarduerak	47
22. Gizonek gauean egiten dituzten jarduerak	47
23. Jardueren maiztasuna sexuaren arabera	48
24. Federazio-lizentzien ehunekoa sexuaren arabera.....	54
25. Federaturik dagoen biztanleriaren ehunekoa	55
26. Kirol-modalitate bakoitzeko lizentziak sexuaren arabera	56



27. Emakumeen lizentzien banaketa	57
28. Emakumeen lizentzien banaketa mendia alde batera utzita.....	57
29. Gizonen lizentzien banaketa	58
30. Gizonen lizentzien banaketa mendia eta ehiza eta arrantza alde batera utzita	58
31. Talde kopurua kirol-modalitatea eta sexuaren arabera	59
32. Eskola kiroleko programan partaidetza. 06/07 Denboraldia	67
33. Partaide kopurua kategoria eta sexuaren arabera. 06/07 Denboraldia.....	68
34. Alebin neskek gehien aukeratutako kirol-modalitateak.....	69
35. Alebin mutilek gehien aukeratutako kirol-modalitateak.....	70
36. Eskola-lizentzia infantilak	71



1 SARRERA

Gizarteko beste hainbat arloetan bezalaxe, jarduera fisikoaren eremuan aldaketa handiak gertatzen ari dira. Gizartearen bizimodu berriek eragina izan duten arren, kirol esparruko maila guztietan emakumearen partaidetza areagotzeak zerikusia ere izan du. Emakume partaideen kopurua areagotu arren, oraindik kirola berdintasunean egitea oztopatzen duten zailtasun ugari daude.

Duela hamarkada batez geroztik Euskal Erakunde Publikoek antzeman dute kirol arloan emakumeen partaidetza bultzatzeko eta emakume eta gizonen berdintasuna bermatuko duten politika espezifikoak abian jartzeko beharra.

1991tik Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Emakumeentzat onartutako Ekintza Positiboko lau Planek (EEEEPP¹) kirola barne hartzen dute esku hartze arlo sozialtzat. **14/1998 Euskadiko Kirolaren Legeak** ere aipatzen du emakumeek kirol arloko maila guztietan partaidetza bultzatuko duten politikak bermatzeko beharra, eta dio, euskal kirol federazioek ezingo dutela sexu bidezko diskriminaziorik egin.

Bestetik, 2003an burutu eta onartu zen **2003-2007 Kirolaren Euskal Planak** emakumea eta kirola oinarrizko gaitzat hartzen du eta arlo horretan esku-hartzeko zenbait ekintza lerro proposatzen ditu. Halaber, **4/2005 Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak** dio sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, euskal herri-administrazioek ezin izango diotela (kirol) jarduera bati inolako laguntzarik

¹ "IV EEEEEPP" www.emakunde.es-en



eman; neurri egokiak hartu behar dituztela kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonen tratua aukera berdintasuna izango dutela bermatzeko; eta emakumeen nahiz gizonen kirol-jarduerei laguntzea sustatuko dutela eta gehitu egingo direla emakumeak gehiengoa diren kirol-modalitateentzako laguntza publikoak.

Hernaniko Udalak 2003ko maiatzaren 16an bere emakume eta gizonen arteko 2003-2005 I Berdintasun Plana onartu zuen. Egun plan honek epe-luzapena jasan du, orduan ezarri ziren epeetan egin gabe geratu ziren ekintzak burutu asmoz.

Hernaniko Udalaren Berdintasun Planak herriko kirol arloan emakumeen partaidetza areagotzeko esku hartzeko beharra aipatzen du. Hain zuzen, kirol esparruan proposatzen den ekintzetako bat **egungo egoerari buruzko diagnostiko** bat egitea da.

2006ko abuztuan Hernaniko Udaleko Berdintasun Arloak kirol arloan ikerketa bat egitea erabaki zuen, ondoren, antzemandako beharrei aurre egiteko **Plan** bat diseinatzeko, hots, herriko kirol arloko **beharrei aurre egiteko esku hartze** proposamen zehatzak egiteko.



2 HELBURUAK ETA METODOLOGIA

• HELBURUAK

Lanaren helburuak honakoak dira:

- Hernaniko herriko kirol-instalazioak eta hauen erabilera deskribatu eta aztertzea.
- Udal Kirol Patronatuko abonua eta bertatik eskaintako jardueretan partaidetza ikertzea.
- Herriko kirol-elkarteen irudikapena egitea.
- Herrian federazio esparruko eta federazioz kanpoko kirol partaidetza aztertzea.
- Udal Kirol Patronatuak kirol-elkarteei emandako diru-laguntzak aztertzea.
- Eskola kirolaren antolamendua eta partaidetza aztertzea.
- Herrian kirola egiteko dauden oztopoak antzematea.
- Udal Kirol Patronatuarentzat Berdintasun Plana proposatzea.

• METODOLOGIA

Honako azterlana egiteko erabilitako metodologia *eredu misto* batean oinarritu da, hau da, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatu dira. Jarraian, aplikatutako informazio-bilketa teknika ezberdinak eta hauen edukiak azaltzen dira taula batean:



1 Taula. Proiektuan erabilitako informazio-bilketa teknikak

	TEKNIKA	KO.	INFORMATZAILEA	EDUKIA
DATU Kuantitatiboak	---	---	Kirol Teknikaria	Kirol-instalazioak, herriko kirol ekintzetan partaidetza (errendimenduko kirola, UKPtik eskaintako ikastaro eta jarduerak), jardueren ordutegiak, abonua eta prezioak, pista balioanitzen erabileraren banaketa eta elkarteei emandako diru-laguntzak.
			Gipuzkoako Foru Aldundia	Eskola kirolari buruzko partaidetza datuak
			Hernaniko Udala	Hernaniko biztanleriaren datuak
			Hernaniko Udala	Ikastetxeetako matrikula-datuak
DATU Kualitatiboak	Elkarriketa erdi-egituratuak	2	Kirol Teknikaria	Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak instalazioen erabileran, instalazioen banaketarekin arazoak, jarduerak eta ordutegiak, eskola kirolaren egituradiru-laguntzetarako irizpideak eta elkarteekin komunikazioa.
		1	Palako entrenatzailea	Pelota elkartearen egoera, udal instalazioak, eskola kirola eta errendimenduaren arteko saltoa, gazteriaren kirol-ohiturak, kirola egiteko senideen laguntza eta kirol-uztea.
		1	Futboleko jokalaririk ohia	Neska eta mutilen taldeen arteko ezberdintasunak, nesken partaidetza errendimenduko kirolean eta Hernaniko kirola orohar.
		1	Futboleko entrenatzailea	Nesken eta mutilen futbolaren arteko ezberdintasunak, emakumeek parte hartzeko dituzten oztopoak, gazteriaren kirol-ohiturak eta kirol-uztea.
		1	Ikastetxe bateko kirol koordinatzailea	Betebeharrak, eskola kirolaren egitura eta eskaintza, begiraleak, Udalarekin komunikazioa, diru-laguntzak eta hezkidetzak.
		1	Gimnasioko begiralea	Gimnasioko erabilera, espazio eta aparatuen erabileran ezberdintasunak, programak eskatzen dituztenak.
		1	Zentro dietetiko bateko arduraduna eta eskubaloiko jokalaririk ohia	Bezeroen profila, arazo nagusiak, sexua eta adinaren arabera ezberdintasunak, bezeroen eta gizartearen kirol-ohiturak eta baloreak.
		Talde-Dinamikak ²	1	Bere kabuz ibiltzera joaten diren emakumeak
	1		Kirolari federatuak	Instalazioen egoerari buruzko iritzia, elkarteetan ezberdintasunak eta zailtasunak, biztanleriaren kirol-ohiturak eta kirol-uztea.
	1		Kiroldegiko erabiltzaileak	Instalazioen egoerari buruzko iritzia, UKPtik eskaintzen diren jarduerari buruzko iritziak biztanleriaren kirol-ohiturak.
	Telefono-deiak	1	Club Deportivo Hernani – Atletismoko saila	Herri lasterketako partaidetza, saritutako kategoriak, ibilbidearen luzaera eta sari-sistema.
	Galdeketa	1	Igerilekuko begiraleak eta sorosleak	Igerilekuaren erabilera, laguntzaileak eta erabiltzaileei buruzko iritzia.

ITURRIA: Norberak egina

² Dinamiketako partaidetza zehatza jakiteko ikusl Eranskina.



Lanak iraun bitartean Hernaniko Udalarekin etengabeko kontaktua izan dugu. Guztira lau bilera burutu ditugu Berdintasun Arloa eta Udal Kirol Patronatuarekin: lehena proiektuaren ezaugarriak aurkezteko; bigarrena jarraipeneko; hirugarrena behin landa-lana amaituta; eta azkenik laugarrena, proiektua bukatu ostean.

Elkarrizketa eta talde-dinamiketarako erabilitako eredu eta gidoiei dagokienez, guztiak norberak eginak izan dira.



3 HERNANIKO KIROL ARLOAN EMAKUME ETA GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA

3.1. Udal Kirol Patronatua

3.1.1. Egitura

Hernaniko herriak guztira 19.013 biztanle ditu, 9.624 emakume eta 9.389 gizon. Biztanleria honako adin-taldeen arabera banatzen da:

2 Taula. Hernaniko biztanleria 2005 adin-taldeen arabera


ADIN-TALDEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
1-10	922	1.004	1.926
11-20	832	809	1.641
21-30	1.166	1.236	2.402
31-40	1.669	1.755	3.424
41-50	1.566	1.642	3.208
51-60	1.153	1.199	2.352
61-70	943	875	1.818
71-80	885	623	1.508
80+	488	246	734
GUZTIRA	9.389	9.624	19.013

ITURRIA: *Hernaniko Udala*

Hernaniko biztanleriaren %51 emakumeak dira. Biztanle gehien (emakume zein gizon) dituen adin-taldea 31 eta 40, eta 41 eta 50 urte-tarteak dira hurrenez-hurren.



1 Irudia. Hernaniko biztanleria adin-taldea eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Udal Kirol Patronatua (UKP) Hernaniko Udaleko autonomiadun erakundea da 1982 urtean sortu zenetik. Gaur egun 46 pertsonak osatzen dute norbere zein azpikontrataturako pertsonala kontutan hartuz. Ondoren UKPko egitura azaltzen da:

3 Taula. Udal Kirol Patronatuaren egungo egitura


	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzendaritza Politikoa	2	7
Patronatuko pertsonala	3	8
Patronatuko ordezkapenetako pertsonala	2	1
BPXport –Kirol zerbitzuak- kontratatutako pertsonala	10	7
PILSA Garbiketa zerbitzuak kontratatutako pertsonala	4	2
GUZTIRA	21	25

ITURRIA: UKP



Patronatuko egitura orokorrean emakume eta gizonen artean ezberdintasun handiak ez egon arren, emakumeak gutxiengoa dira zuzendaritza politikoa zein Patronatua beraren pertsonalaren artean. BPXport enpresaren bidez kirol-jarduerak emateko kontratatutako emakume eta gizonen kopurua nahiko parekatua izan arren, batik bat emakumeak arduratzen dira garbiketa zerbitzuaz. Emakume eta gizonek Patronatuan dituzten lanpostuak irudikatuz gero, honako ezberdintasunak aurki daitezke:


2 Irudia. UKPn emakumeek dituzten lanpostuak



ITURRIA: Norberak egina

Egun Patronatuan lan egiten duten emakumeen %66 kirol zerbitzuen enpresa edota garbiketa enpresaren bitartez azpikontraturik dago, aitzitik, azpikontratatutako gizonen kopurua %36 da. Kontutan izan behar da UKPk garbiketa zerbitzuen enpresa kontratatzeke ezartzen dituen baldintzetako bat aurreko enpresan eginkizun hori betetzen zutenak kontratatzea dela, hala, langile horien laneko egonkortasuna ziurtatzen duelarik.

3 Irudia. UKPn gizonen dituzten lanpostuak




ITURRIA: Norberak egina

Patronatuaren egitura osatzen duten gizonen %60 zuzendaritza politikoan daude edota bertako langile finkoak dira; soilik emakumeen %24 dago egoera horretan.

UKPren beraren langilerian arreta jarriz (11 pertsona, 3 emakume eta 8 gizon), batak edo besteak dituen eginkizunak ezberdinak dira, izan ere emakumeek, begirale eta atezain lanpostuak betetzen baitituzte.


4 Irudia. UKPko emakumeen eginkizunak



ITURRIA: Norberak egina

Aldiz gizonek, zuzendaritza eta dinamizazio lanpostuen 100% betetzen dituzte eta beste lanpostu guztietan ere ordezkaturik daude.

5 Irudia. UKPko gizonen eginkizunak



ITURRIA: Norberak egina

Hernaniko UKP Buruntzaldea mankomunitateko partaide da. Mankomunitate hau inguruko bost Udalek osatzen dute (Andoain, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta eta Usurbil) eta horien guztien kirol zerbitzuak hobetzeko eta biztanleriaren kirol-jarduera aukerak zabaltzeko sortu zen³. UKPn abonua duten biztanleek aukera dute ekimen horretan parte hartzen duten udalen kirol-instalazioak erabiltzeko. Mankomunitate honen bidez gizarteko arlo ezberdinetan euskararen erabilera sustatzeko lana egiten da baita ere.

³ www.buruntzaldea.orgen eskuratutako informazioa



3.1.2. Udal instalazioak

Hernaniko herriak nahikoa kirol-azpiegitura zabala du, halaber, kirol erabilerarako baliabide ugari eskaintzen dituen ingurune naturala du (Santa Barbara mendia, Urumea ibaia,...).

Udal instalazio gehienak Udaletik edo Patronatutik kudeatzen dira. Ondorengo taulan zehazten da Hernaniko kirol ekipamendua eta honen kudeapena:

4 Taula. Hernaniko udal kirol-instalazioak

INSTALAZIOA	KUDEAPENA
Atletismo pista	Udal Kirol Patronatua
Ereñotzuko Bolatokia	Udal Kirol Patronatua
Etxeberriko Bolatokia	Udal Kirol Patronatua
Karabeleko futbol zelaia	Udala
Ereñotzuko futbol zelaia	Udala
Zubipe futbol zelaia	Club Deportivo Hernani
Zinko Eneako Skatinga	Udala
Tilosetako frontoia	Udala
Landare rugby zelaia	Hernani Club de Rugby
Latxunbe Berriko pista balioanitza	Udala
Antziolako pista balioanitza	Udala
Gartzia Goldarazeko pista balioanitza	Udala
Santa Barbarako tiro zelaia	Sociedad de Caza y Pesca Txantxangorri
Mendi Mendiyan	Udal Kirol Patronatua
Arrauneko pabiloia	Udal Kirol Patronatua
Jauregiko eskola zaharrak	Udal Kirol Patronatua
Bulder-Eskalada	Hatzi Climbers
Udal Kiroldgia	Udal Kirol Patronatua

ITURRIA <http://www.kirolzerbitzua.net/ekipamenduak> eta Udal Kirol Patronatua



Zenbait udal instalazioen kudeapena kirol elkarteen menpe dago, hain zuzen Zubipe futbol zelaia, Landare rugby zelaia, Santa Barbarako tiro zelaia eta Etxeberriko bulder eta eskalada eremua. Instalazio hauen kudeapena, aldizka berrikusten den hitzarmen baten bidez uzten zaie elkarteei.

Jauregiko eskola zaharren kasua ezberdina da, izan ere, ez baita berez kirol instalazio bat. Udalak lokal horiek Hegatz urazpiko jarduren elkarteari utzi dizkio materiala gordetzeko. Erabakia ez da tinkoa oraindik, izan ere, Plenoan onartu behar baita.

Hernaniko kirol jarduera hein handi batean **udal kiroldegian** egiten da. Kiroldegia 1983 urtean zabaldu zen eta hogeita lau urte hauetan eraldaketa asko jasan ditu; alde batetik, eremuak kirol eskariaren behar berriei egokitzeko eta bestetik, eraikina beraren eraberritze eta hobekuntza lanek eragin dutelako. Ondorengo taulan kiroldegiko egungo instalazioak azaltzen dira:

5 Taula. Hernaniko kiroldegiko instalazio espezifikoak

INSTALAZIOA	KOPURUA	ERABILERA
Pista balioanitza	2	
Areto balioanitza	2	Tatamia
Areto balioanitza	2	Aerobic-pilates-manten. gimna.
Areto espezializatua	1	Spinning
Giharketa gela	2	Giharketa
Squasha	1	
Sauna	1	
Frontoia	1	
Igerilekuak	2	
Medikuntza zentroa	1	

ITURRIA: <http://www.kirolzerbitzua.net/ekipamenduak> eta UKP



Une honetan kiroldegiko teilatua konpontzen ari dira. Obra hau bi epetan banatu da, frontoietik hasi, igerilekutik segi eta goiko pistan amaitzeko. Pistan entrenatzen duten kirolariek diote teilatuko lurrinduraren ondorioz zorua egoera txarrean egon dela jokatzeko; itoginaren ondorioz egurrak eman egin zuen eta zelaian konkorrak sortu ziren. Pista dagoeneko konponduta dago, baina kirolari hauek diote agian lehenago teilatua konpondu izan beharko litzatekeela.

Kafetegia eta igerilekuaren gainean gela balioanitzak daude. Lehen teniseko zelai bat zegoen ere bai, baina egun tatamian bihurtzen ari dira. Eraldaketa honen helburua da gimnasioa handitzea eta erabili gabe zegoen espazioa aprobetxatzea. Kirolddegiko erabiltzeile eta begiraleen hitzetan, gela hauetan izugarritzko hotza egiten du. Egun pilateseko klaseak toki honetan ematen dira eta erabiltzeileek zein begiraleek gehiegizko hotza egiten duela esaten dute. Behin behineko egoera hori konpontzeko asmoz, UKPk berogailuak erosteko asmoa zuen, baina antza, aukeratutako sistema zaratatsuegia zen pilates egin ahal izateko, izan ere, jarduera honek erabateko isiltasuna eskatzen du. Begirale batek dio ia posiblea izango litzatekeen kiroldegiko beste espazio bat erabiltzea honetarako (tatamia esaterako, libre dagoen orduetan), gelan hotz handia egiten baitu.

Bestalde, kiroldegiko erabiltzaileek diote aurreko urtetan aerobicoko klaseetan sekulako beroa egiten zuela, jende gehiegi baitzegoen gela berberan; ispilua lurrundu egiten zen eta leihoak ireki behar izaten zituzten. Orduan hotza handia egiten zuen barruan. Uste dute, aerobicoko arratsaldeko klaseetara iristen direnerako gela horietatik jende asko pasa dela eta hautsa eta ilez beteta egoten direla. Baten batek klasea baina lehenago pixka bat txukundu ote zezakeen galdetzen dute.



Halaber, emakumeen aldageletan aspalditik itoginak daudela eta konketak etengabe izorratuta daudela diote. Maiz komunetan papera jartzeko eskatu behar duten kexu dira eta zenbait ordutan jendez gainezka daudela diote. Handiak izan arren ez dago nahikoa toki erabiltzaile guztientzat eta lekua gehixeago aprobetxatzeko proposamena luzatzen dute, erdialdean eserlekuak jarritz. Dutxetan eta konketa ondoan xaboia eta beste uzteko apalak jartzea ere proposatzen dute, izan ere, ez dago lekurik ile-eskuila eta xanpuarentzat, eta beti lurrean utzi behar izaten baitituzte. Bestetik, amei alabei laguntzeko dutxetara oinetakoekin sartzea debekatu beharko litzaieke; izugarritzko higie eza iruditzen zaie eta uste dute bitartekoak jarri beharko liritekeela hori ekiditeko, esaterako, idatzizko ohar bat.

Izan ere, normalean amak dira seme-alabei kirol ikastaroetara laguntzen dietenak eta, igerilekuko sorosle eta begiraleen hitzetan, ez dute denbora tarte hori kirola egiteko aprobetxatzen; ikastaroak iraupen laburrekoak badira (hilabete bat edo bi) kristaletik begira edo kafetegian geratzen dira, aldiz ikastaro luzeagoak badira, kalera atera eta enkarguren bat egiteko aprobetxatzen dute. Haurtxoentzako ikastaroei dagokienez, normalean goizetan amek eramaten diete eta arratsaldetan amek zein aitek. Boladak ere izaten dira, batzuetan ama eta bestetan aita, baina UKPtik egiten den gomendioa da ahal bada beti pertsona bera izatea.

Goiko solairuko aldagelak, elkarteek erabiltzen dituztenak, egoera txarrean daude: lurra irristakorra da eta dutxetatik jeisteko eskailerek arriskua areagotzen dute; maiz dutxak urak hartzen ditu eta komunean ez dago taparik ez eta esertzeko euskarririk ere.


Saunan emakumeen aldagelako atea izorraturik dago eta ezin da itxi; saunara joaten den edonork ikusi dezake aldatzen ari den pertsona. Arratsaldeko zenbait ordutan igerilekua jendez gainezka dago; uste dute ez dagoela nahikoa leku



ikastaroetako partaide eta norbere kabuz doazenentzat. UKPk badaki arazo honen berri; alde batetik igeriketa elkarteak modu egokian lan egin ahal izateko nahikoak kaleak ez dituen kexu da, eta bestetik, erabiltzaileek diote ezin dela gustura igeri egin. Kirol teknikariaren ustetan Patronatua, tartean dauden pertsona edota erakunde guztiak koordinatzen saiatu behar da.

Honen harian, badirudi arazo nagusienetako bat dela abonatu eta elkarteen beharrak asetu ahal izateko nahikoa lekua ez dagoela; elkarteak pista eta frontoia erabiltzeko nahiko orduak ez dituzten kexu dira, eta UKPn uste dute ez dela zilegia elkarteei lehentasuna ematea, izan ere, abonatuek kuota garestiagoa ordaintzen baitute, ondorioz, frontoia eta pista norbere kaxa erabiltzeko eskubidea izanik. Egun kiroldegiko pistek ondorengo okupazioa azaltzen dute asteko:

6 Irudia. Kiroldegiko pisten asteko banaketa



ITURRIA: Norberak egina

Lehen pista asteen 33 orduz hartuta egoten da eta bigarren pista 6 orduz. Kirol teknikariaren hitzetan orain dela hamabost urte, askoz ere federazio-mugimendu gehiago zegoenean, guztien artean pisten banaketarekin konpontzen ziren. Gaur egun norbere kabuz (partaidetzako kirola) kirol gehiago egiten da federazio-esparruan baino, gainera, UKPek biztanleria guztiaren beharrak asetu behar ditu.

Hala eta guztiz ere, kiroldegian ez dira hainbeste arazo egoten pista lehiaketetarako banatzeko, aitzitik, pelotan auzi gehiago izaten dituzte. Hernaniko elkarteen ustez Patronatua bera eta elkarteen artean komunikazio bideak sortu beharko lirateke, orohar Hernaniko kirol sistemako gaietaz hitz egiteko; eta batez ere, instalazio publikoen erabileraz hitz egiteko.

Kirol teknikariari zein talde-dinamiketan parte hartu zutenei haurrei aldageletara amak ala aitak laguntzean arazorik sortzen den galdetzean, orohar diote gaia honek ez duela arazo handirik sortarazten. Igerilekuan esaterako, hain zuzen neska eta mutil gaztetxoek gehien erabiltzen duten instalazioan, lau aldagela daude (gizonena, emakumeena, mutikoena eta neskatoena), eta baita haurtxoen aldagailua dagoen bostgarren gela bat ere. Noizbait gertatu da aita bat bere alabarekin neskatoen aldagelan sartu eta bertan, egoeragatik “ezeroso” sentitu den neskaxa bat egotea, baina gehienetan amak dira neska-mutilei laguntzen dietenak. Talde-dinamiketan diote hoberena dela aldatzeko laguntza behar duen edonork (neska edo mutil, aita edo amak lagunduta) erabiltzeko aldagela bat egotea, eta gainontzekoak, emakumeena edo gizonena joatea. Halaber, hau guztia arautu arren laguntza behar duen ezinduren bat joatea gerta liteke, beraz, kasu hau kontutan izan beharko litzateke aldagelen egituraketa berria eginez gero.

Honen harian, kiroldegiko instalazioei buruz aipatzen den beste kontu bat, ezintasun fisikoak dituztenentzat eraikinak dituen traba arkitektonikoak dira. Orain gutxi gorrentzat jarritako pantailak ontzat hartzen dituzten arren, sarbideetan traba arkitektonikoak daudela diote. Igerilekurako sarreran aldapa dagoen arren, igerilekuan ez dago uretan sartzeko aulki espezializatua; ez dago igogailu bat bera ere kiroldegi guztian eta leku gehienetara iristeko eskailerak daude. Gurpildun auki batean dagoen norbai gimnasia kafetegiko aldetik sartu ahal izango luke (giltzapean egoten den burdin hesia zabalduz), baina gero ez luke izango non



dutxatu eta aldatu. Bestalde, pertsona hauek goiko pistara joateko duten modu bakarra (arazoekin, eskailerak baitaude) Elkano kaleko aldapatik izango litzateke; baina kasu honetan ere atea ireki beharko litzaioke. Azkenik, beheko atean baita ere, atezaintza dagoen aldekoak hain zuzen, eskailerak daude aldageletara joateko. Pertsona hauek ezin dute ezta ere areto balionatztetara, frontoira eta saunara iritsi.

Kirol teknikariaren hitzetan, gimnasioan aurreikusitako birmoldaketan gurpilezko aulkian dauden pertsonentzat giharketa aparatu bereziak jartzeko asmoa dute, beraz, ezinbestekoa da lehendabizi sarbideak eta kiroldegi barruko mugikortasuna egokitzea.

Talde-dinamiketan beste udal instalazio batzuk ere aipatu dituzte, esate baterako 1999 urtean zabaldu zen **atletismoko pista**. Pista honek 300 metro ditu, beraz ezin da bertan atletismoko edozein proba burutu. Dinamiketan diote pena bat dela horrelako instalazio bat egin ondoren edozein lehiaketarako ezin erabiltzea. Halaber, pista inguratzen duen belarrezko eremua pixka bat lautu eta garbituz gero entrenatzeko erabil zitekeela diote; egun muinoen eta txakurren gorotzen ondorioz, korrika egitera joaten direnek ezin dute esparru hori erabili.

Hernaniko kirol arloarekin zerikusia duten beste pertsona batzuek orohar biztanleriarentzat kirol-instalazioen beharra azpimarratu zuten. Proposatzen dituzten irtenbideak ez dira soilik instalazio berriak eraikitzea, aitzitik egun ongi aprobetxatzen ez direnak konpondu eta egokitu beharko liratekeela uste dute. Jarritako adibideak besteak beste, Tilosetako frontoia estaltzea eta atzealdean lehen bezala aldagelak egitea edota eskola kirolerako Gay-Mur eta Gabriel Zelaya pista balioanitzak estaltzea dira.



Herriko zenbait lekutan argiztapena hobetzeko beharra ere aipatu dute. Alde batetik Zubipeko atzealdeko futbol zelaian ez dago nahikoa argi eta ateetan ez daude sareak, hortaz entrenamenduak ezin dira behar bezala egin. Bestetik, Hernaniko toki ezberdinetatik korrika egiteko ohitura duten emakumeek diote leku askotan argi gutxi dagoela: Osinagako bidea, Ergobiako bidea Landaretik, Urnieta eta Lasarterako bide zaharra eta Martutenerako bide zaharra.



3.1.3. Diru-laguntza politika


2006 urtean Udal Kirol Patronatuaren aurrekontua 2.310.559 € izan zen. Ondoren, Kapituloka azaltzen da:

6 Taula. UKPren gastuak Kapituluen arabera

KAPITULUA	KONTZEPTUA	GASTUA
I	Pertsonala	502.121 €
II	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	684.889 €
III	Finantza gastuak	8.383 €
IV	Transferentzia arruntak	114.962 €
VI	Inbertsio errealak	919.888 €
VIII	Finantza aktiboak	7 €
IX	Finantza pasiboak	80.309 €
GUZTIRA		2.310.559 €

ITURRIA: UKP

7 Irudia. UKPren 2006ko aurrekontuaren ehunekoa Kapituluen arabera



ITURRIA: Norberak egina



UKPko gastuen %39 *inbertsio errealak* izan dira, hala nola, eraikin ezberdinetako obrak (instalazioak) edota kudeapenerako informatika programa berri baten ezarpena; kopuru osoaren %29,6 berriz, *ondasun arruntak eta zerbitzuetan* gastatu da eta %21,7 pertsonalean.

Orhar UKPko aurrekontuaren %5 elkarteei emandako diru-laguntzak dira. Ondorengo taulan IV Kapituluaren –Transferentzia Arruntak- banaketa azaltzen da:

7 Taula. UKPren 2006ko gastua IV –transferentzia arruntak- Kapitulan

KONTZEPTUA	GASTUA
Elkarteei ohiko jardueretarako diru-laguntzak	26.336 €
Eskola kiroleko diru-laguntzak	25.000 €
Elkarteekin hitzarmenak	53.326 €
Ez-ohiko kirol jardueretarako diru-laguntzak	9.000 €
Federazioei diru-laguntza	1.300 €
GUZTIRA	114.962 €

ITURRIA: UKP


Datuek azaltzen duten moduan herriko elkarteei diru-laguntzak emateko partida ezberdinak daude. Lau lerro naguzi bereizten dira: elkarteen ohiko jarduerak; ez-ohiko kirol jardueren antolaketa, hots, herrian antolatzen den proba edo lehiaketa zehatza; eskola kirolerako diru-laguntzak; eta hitzarmenen bidez ematen diren diru-laguntzak.



Azkenik, Hernaniko UKPk federazioei diru-laguntza ematen die ere bai. Ez da oso ohikoa udal batek federazio bati diru-laguntza ematea, baina honako kasua ezberdina da; hain zuzen, Gipuzkoako Pelota Federazioak 2004n sustatutako “Emakumea Pilotari” proiektuari dagokio. Proiektu honetan Gipuzkoako hamar udalek parte hartu dute (Arrasate, Ataun, Azpeitia, Bergara, Donostia, Hernani, Hondarribia, Irun, Tolosa y Zestoa) eta pelotan emakumeen partaidetza areagotzea⁴ dute helburu. Udal bakoitzak partida bat jartzen du eta bere frontoiak debalde uzten ditu pelotako lurraldeko txapelketarako. Hernanin baldintzak hitzarmen batean jasota daude.

Jarraian transferentzia arrunten ehuneko banaketa azaltzen da irudi batean⁵:

8 Irudia. UKPren 2006ko transferentzia arrunten ehunekoa



ITURRIA: Norberak egina

⁴ http://manista.blogs.com/bitacora/2004/12/emakumea_pilota.html-en eskuratutako informazioa

⁵ UKPk 2006n likidatu ditu 2004/2005 denboraldiari dagozkion diru-laguntzak.



IV –Transferentzia arruntak- Kapituluko kopuruaren %46 elkarteek instalazioak kudeatzeko hitzarmenetan gastatzen da. Guztira lau elkarteek jasotzen dute diru-laguntza hitzarmen baten bidez, baina garrantzitsuenak C.D. Hernani (20.227 €) eta H.C.R. Rugby (22.231 €) dira; esan bezala, elkarte hauek Zubipe eta Landareko instalazioak kudeatzen dituzte hurrenez hurren.

Bestetik, eskola kirola eta elkarten ohiko jarduerak aurrekontu osoaren % 22 eta 23 dira hurrenez hurren. Elkarten ohiko diru-laguntzak emateko UKPk urtero deialdi publiko bat egiten du, bertan, bakoitzari dagozkion puntuazioa esleitzeko irizpideak ezarriz. 2004/2005 denboraldiari dagokionez hauetxek dira elkarte eta saila bakoitzari emandako diru-laguntzak:



8 Taula. Elkarteei emandako diru-laguntzak. 2004/2005 Denboraldia


ERAKUNDEA	SAILA	SAILARI DAGOKIONA	ERAKUNDEARI DAGOKIONA
Hernani Kirol Elkartea	Boleibola	1.928,55 €	8.905,13 €
	Igeriketa	2.988,01 €	
	Judoa	1.179,60 €	
	Mahaiko tenisa	748,15 €	
	Saskibaloia	619,60 €	
	Waterpoloia	1.441,22 €	
Club Deportivo Hernani	Atletismoa	812,40 €	7.513,67 €
	Futbola	4.645,00 €	
	Pelota	2.056,27 €	
Hernani Club de Rugby	Errugbia		4.016,14 €
Hernani Gimnasia Erritmiko Elkartea	Gimnasia Erritmikoa		564,55 €
Ur-mia	Boloak		883,55 €
Mendiriz Mendi	Mendia		750,00 €
Club de Actividades Subacuáticas Hegatz	Urpekaritza		700,00 €
Txirta Hernani Tiro Elkartea	Ehiza eta tiroa		400,00 €
Hernaniko Xake Elkartea	Xakea		1.002,90 €
	GUZTIRA		24.735,94 €

ITURRIA: UKP

2004/2005 denboraldian elkarteen ohiko jardueretarako gastua guztira 24.735,94€ da, honako banaketaren arabera:



9 Irudia. Elkarteko bakoitzari emandako diru-laguntzaren ehunekoa. 2004/2005 denboraldia



ITURRIA: Norberak egina

Irudian ikusi daitekeen moduan futbola (%18), errugbia (%16) eta igeriketa (%12) dira UKPtik kopuru handiena jasotako modalitateak.

Lehen urteko diru-laguntza deialdian (G.A.O., 25 zkia., 2006ko uztailak 3), diru-laguntza irizpideek izaera orokorra dute; puntuazio ezberdinak esleitzen dira kategoria, kirol-maila, kirolari kopurua, begiraleak, e.a. Gomendagarria litzateke elkarrekin emakumeen taldeak edukitzeagatik edo emakume kirolariengatik puntuazioa areagotzea, elkarrekin ezberdinetan emakumeen partaidetza sustatzeko. Hala eta guztiz ere, neurri honek ez luke diru-laguntza publikoen banaketan berdintasuna bermatuko, beraz, helburu hau lortzeko beste neurri osagarriak hartu beharko liriateke.



Halaber, elkarte bakoitzari emandako dirua kopuru orokorra da, hortaz ezin daiteke zehazki jakin elkartean diru-laguntza nola banatzen den edo zenbat diru gastatzen den emakumeetan eta zenbat gizonetan. Behar bada elkarteei eskakizunean nesken eta mutilen saila bereiztea behartu beharko litzaietxe; honek kirolari-talde bakoitzerako zenbat diru den jakitea ahalbidetuko luke. Aatik, ekimen hau dela eta 4/2005 legea beteko litzateke, esan bezala, “*sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, euskal herri-administrazioek ezin izango diote (kirol) jarduera bati inolako laguntzarik eman*”⁶ xedatzen baitu.

3.1.4. Mintzaira eta sexismoa UKPn

2003-2005 Hernaniko emakume eta gizonen berdintasunerako I Udal Planean Administrazioan hizkuntzaren erabilera sexista ekiditeko zenbait ekintza proposatzen dira, besteak beste, hizkuntzaren erabilera ez sexistari buruzko udal gida⁷ bat egitea eta banatzea proposatzen da 2003ko azarorako. Egun badago Hernaniko Udalean hizkuntzaren erabilera sexista ekiditeko dokumentu bat, baina hala eta guztiz ere, badirudi UKPk ez duela behar bezain arreta haina jarri gai honetan.

Batetik, diru-laguntza oinarrien gaztelerazko iragarkia eta inprimaki-erantsiak genero-maskulinoan idatzita daude: “*listado de los deportistas, entrenadores*”, “*número de abonado*”, “*poseedores*”, “*colaboradores*”. Bestetik, ordutegiak, abonauak, zerbitzuak eta beste azaltzen diren dokumentuan⁸, genero-maskulinoa

⁶ ITURRIA: EHAO (2005). 4/2005 Legea, Emakume eta Gizonen Berdintasuna, 42 zkia.

⁷ 2003-2005 Hernaniko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I Udal Planean eskuratutako informazioa

⁸ www.hernani.net-en eskuratutako informazioa



(“abonados”, “usuarios”, “adultos”, “repetidores”, “nuevos”) “@”ren (“niñ@s”) erebilerarekin konbinatzen da.

Badago hirugarren dokumentu bat, Buruntzaldeak argitaratzen duena, gurasoentzat eskola kirolari buruzko informazioa ematen duena: “Eskola Kirola. Gurasoentzako informazioa”, hots, “*Deporte Escolar. Información para padres y madres*”. Liburxka hau osorik genero-maskulinoan idatzita dago (“educadores”, “vosotros”, “niños”, “hijos”, “entrenadores”, “todos”, “los jóvenes”, “padres”). Hala ere, esan behar da barruko irudietan neska zein mutilak agertzea aspektu positibotzat hartu behar dela.

Honenbestez, gomendagarria litzateke UKPko hedapen dokumentu guztiak berrikustea eta hizkuntzaren erabilerarako irizpide homogeenok ezartzea; testu berean formatu ezberdinak erabiltzeak nahasketa sortzen du eta ondorio hau saihestea komeni litzateke.



3.2. Partaidetzako kirola

Kirolaren Euskal Planak 2003-2007 partaidetzako kirola honela definitzen du: *“kirolariak egiten duen huraxe hainbat arlotan dituen premiak asetzeko: aisia, olgeta, estetika edo/eta osasuna, alde batera utzita jarduera kirol-esparru antolatuetan, lehiaketan, modu arautuan egiten den ala ez”*.

Hernanin, kirola egin nahi duen orok modu ezberdinetan egin dezake, oinez ibiltzea, bizikletan ibiltzea, korrika egitea e.a. edota Udal Kirol Patronatuan abonatzea norbere kabuz kirola egiteko ohiko modua izanik.


Bat Patronatuan norbere kabuz instalazio libreak (igerileku klimatizaturia, gimnasioa, squasheko pista, frontoia,...) erabiltzeko abonatu daiteke edota eskaintzen diren kirol-ekintzetan izena emateko.

3.2.1. UKPren abonatuak eta jarduerak

Egun Hernanin 6.955 lagunek Udal Kirol Patronatuan abonatu dute, hots, herriko biztanleriaren %36,6k. Abonatu hauen %51 emakumeak dira eta beste %49 gizonak, beraz, biztanleriari dagokion ehunekoa mantentzen da.



10 Irudia. UKPn abonua duten banakoen ehunekoa sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Dena den, sexu baten eta bestearen abonuen arteko ezberdintasuna 87 da. Abonuen ehunekoa adin-taldearen arabera ezberdinduz gero, abonu kopuru handiena 1-10 urte-tartean aurkitzen dela ikus daiteke, adin horretako biztanleriaren %73,1 izanik.

9 Taula. UKPren abonua kopurua 2006 adina eta sexuaren arabera


ADINA	EMAKUMEAK	%	GIZONAK	%	GUZTIRA	%
1-10	670	72,7	738	73,5	1.408	73,1
11-20	520	62,5	545	67,4	1.065	64,9
21-30	481	41,3	434	35,1	915	38,1
31-40	832	49,9	711	40,5	1.543	45,1
41-50	725	46,3	718	43,7	1.443	45,0
51-60	201	17,4	208	17,3	409	17,4
61-70	63	6,7	60	6,9	123	6,8
71-80	23	2,6	17	2,7	40	2,7
80+	6	1,2	3	1,2	9	1,2
GUZTIRA	3.521	36,6	3.434	36,6	6.955	36,6

ITURRIA: Norberak egina



Sexuen arteko ezberdintasun handienak 11-20, 31-40 eta 41-50 adin-tarteetan aurkitzen dira. 11 eta 20 urte tartean ezik, adin-talde guztietan gizonak baino emakume gehiago daude. 21 eta 30 urte tartean biztanleriari dagokionez abonua duten emakumeen kopurua talde horretan bertan gizonen kopurua baino sei puntu handiagoa da (41,3% eta 35,1%); 31 eta 40 urte artean ezberdintasuna bederatzita puntutakoa da (49,9% eta 40,5%); eta 41 eta 50 urte artean ezberdintasuna hiru puntutara jesiten da (46,3% eta 43,7%).

11 Irudia. 2006 abonua kopurua adin-taldearen arabera




ITURRIA: Norberak egina

Abonuen %23 (1.599) banakoak dira eta gainontzeko %77 (5.367) familiakoak. Hala ere, azken lau urtetan abonuen erabilera konparatuz gero, hogeita hamar urtetatik aurrera instalazioak gehien bat emakumeek erabiltzen dituztela ikus daiteke; urte bateteik hogeita urtetara emakume eta gizonen erabilera nahiko antzekoa da; eta hogeita bat urtetatik hogeita hamar urtetara gehien bat gizonek erabiltzen dute abonua.



12 Irudia. 2003z geroztik kiroldegiko sarreren erregistroa



ITURRIA: Norberak egina

Kontutan izan behar da seme-alabarik ez duen bikote batek familiako abonua egin dezakeela etxe berean erroldaturik daudela ziurtatzen badu, beraz, nahiz eta bietariko batek instalazioak gehiago erabili, baliteke bikote askok abonua mota hau egitea, merkeagoa baita.

Nolanahi ere, kiroldegian hiru txartel mota daudela esan behar da: abonatu arrunta, kirolari txartela (merkeagoa, instalazioetan entrenatzen duten federazio-kirolarientzat) eta eskola kiroleko txartela. Azken hau debaldekoa da, baina beharrezkoa da aurkeztea instalazioetara sartzeko.

Bestalde, jardueri dagokienez, guztira hamazazpi ikastaro eskaintzen dira: igeriketa (bederatzi ezberdin), aquagim, aerobica, spinninga, mantentze-gimnasia, karatea, hirugarren adinarentzat gimnasia eta pilates. Eskainiko diren jardueren aukeraketa UKPko Zuzendaritzatik egiten da irizpide teknikoak jarraituz eta ahoz egiten diren eskakizunak kontutan hartuz; baina hala ere, eskakizuna sistematizatu gabe dago. Dena den, spinningaren kasuan esaterako, bizikletak garestiak dira,



hortaz, haseran inbertsio txikia egin zuten froga egiteko, eta arrakastatsua zela ohartzean, eskaintza zabaldu zuten.

Emakumeek eta gizonek egiten dituzten jarduerak kontutan hartzen badira, zenbait ezberdintasun daude. Segidan 2006n eskainitako jarduerak eta partaidetza maila azaltzen da taula batean:

10 Taula. UKPtik eskainitako jarduerak eta partaidetza 2006

Jarduera	06/07	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Igeriketa*	Haurtxoak	36	39	75
	3-4 urte	20	32	52
	Hastapena (+ 5 urte)	101	140	241
	Haurrentzat ur-jarduerak	68	58	126
	Igeriketako Eskola	19	16	35
	Helduen hastapena	86	34	120
	Helduen mantentzea	37	30	67
Aqua-gym		44	0	44
Aerobic		231	9	240
Spinning		99	57	156
Mantentze-gimnasia		65	0	65
Karatea		23	64	87
Hirugarren adinekoen gimnasia		107	28	135
Pilates		140	7	147
GUZTIRA		1.076	514	1.590

* Igeriketako ikastaroetako datuak ezberdinak dira beste jarduerekin alderatuta, izan ere, aniztasun handia azaltzen dute ikastaro ezberdinen iraupenari (hilabetekoak, hiruhilabetekoak, urtekoak) dagokionez. Beraz, modalitate honetako partaidetzako datuak erlatibizatu egin behar dira.


ITURRIA: UKP



Ikus daitekeen moduan, izena eman duten emakumeen kopurua gizonena baino askoz handiagoa da. Emakumeen abonua kopurua gizonena baino askoz handiagoa ez dela kontutan izanik (%51), gizonek kirol-ekintzak norberaren kontura egiten dituztela pentsa arazten du (gimnasioa, frontoia edota pista balioanitz).

UKPko ikastaroetako inskripzioen %100tik %21 gizonak eta %79 emakumeak dira. Emakumeek eta gizonak egiten dituzten ekintzak ezberdinduz gero eta soilik urte osoko iraupena duten ikastaroak kontutan hartuz, esan behar da emakumeek gutxi gorabehera ekintza guztietan parte hartzen dutela.

13 Irudia. UKPko jardueretan emakumeen partaidetza 2006/2007




ITURRIA: Norberak egina

Partaidetza gehien duten ekintzak arobic eta pilates dira, hurrenez hurren %31 eta %19 izanik. Kirol teknikariaren hitzetan, ikasturte haseran UKPk pilatesko eskaintza hirukoiztu behar izan zuen sortutako eskaria dela eta. Bi ekintza hauek ordutegi ezberdinetan eskaintzen dira, goizeko zortzietatik gaueko bederatzia arte, hamalau ordu ezberdinetan.

Elkarrizketatutako pertsonen aburuz, emakumeen artean aerobicak duen arrakastak egun emakumeek eta gizonak jarduera fisikoa eta kirolaz duten kontzeptuarekin zerikusia du. Gizonak itxuragatik geroz eta gehiago arduratzen diren arren, emakumeek jarduera fisikoa estetika eta osasunarekin gizonak baino gehiago erlazionatzen dutela uste dute.

Ondoren gizonak parte hartzen duten jardueren irudi bat azaltzen da:

14 Irudia. UKPko jardueretan gizonen partaidetza 2006/2007




ITURRIA: Norberak egina

Gizonek gehien egiten duten ekintza spinninga da (%36), jarraian, mantentze-igeriketa (%19), hirugarren adineko gimnasia (%18) eta karatea (%17) izanik.

Emakume eta gizonek egiten dituzten ekintzak konparatuz gero, ikus daiteke emakumeak UKPko ekintza guztietan gizonak baino gehiago direla karatean ezik.

15 Irudia. 2006/2007ko jardueretan partaidetzaren erkaketa sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Areobica UKPko ekintza guztietatik emakume gehien daudena da, izan ere 231 emakumeek egiten dute. Aquagim eta mantentze-gimnasia ez dago gizon bakar bat bera ere. Gizon gehienek (65) karatea eta spinninga (57) egiten dute. Karatea emakumeak baino gizon gehiago dauden jarduera bakarra da.

Ekintza hauek guztiek ordutegi aukera zabala eskaintzen dute, ondorioz partaidetza datuak oso ezberdinak dira jarduera bakoitza eguneko zein unetan egiten den kontutan hartzen bada.

11 Taula. Helduen partaidetza 2006/2007 ordutegia eta sexuaren arabera

	Goizez		Arratsaldez		Gauetz*	
	E	G	E	G	E	G
Aerobic	39	0	97	1	71	1
Mantentze-gimnasia	22	0	21	0	22	0
Hirugarren adina	107	28	0	0	0	0
Spinning	14	6	27	11	58	40
Pilates	66	4	55	2	19	1
Aquagym	29	0	0	0	15	0
Karatea	0	0	0	0	4	16
Mantentze-igeriketa	34	19	0	0	3	11
Guztira	311	57	200	14	192	69

* 19etatik aurrera


ITURRIA: UKP

Dena den, datuak interpretatzeko orduan kontutan izan behar da hirugarren adineko gimnasia soilik goizez egiten dela eta aquagyma goizez eta gauetz.

Jarraian kiroldegian goizez, arratsaldez eta gauetz eskaintzen diren jardueretako partaidetza datuak irudikatzen dira:



16 Irudia. 2006/2007ko jardueretan partaidetzaren erkaketa ordutegia eta sexuaren arabera



* Arratsaldeko 19etatik aurrera


ITURRIA: Norberak egina

Emakume gehienek ekintzak goizez egiten dituzte eta gaez gutxien, aldiz gizonak gehien bat gaueko ekintzetan parte hartzen dute.


Hala eta guztiz ere, kontutan izan behar da goizez parte hartzen duten 311 emakumeetatik 107 hirugarren adineko gimnasiara joaten diren emakumeak direla, beraz, goiza eta arratsaldeko parte hartzea ez litzateke hain ezberdina izango kolektibo zehatz honi zuzendutako ekintza honengatik ez balitz.




17 Irudia. Emakumeek goizean egiten dituzten jarduerak



18 Irudia. Emakumeek arratsaldean egiten dituzten jarduerak



19 Irudia. Emakumeek gauean egiten dituzten jarduerak




ITURRIA: Norberak egina


Esan bezala, goizez gehien egiten diren ekintzak hirugarren adineko gimnasia (%34) eta pilates (%21) dira: arratsaldez berriz aerobic (%48) eta pilates (%27); eta gauez, aerobic (%37) eta spinning (%30).

Bestalde, gizon gutxiak parte harzten du eta ekintza gutxiago egiten dituzte:


20 Irudia. Gizonek goizean egiten dituzten jarduerak



21 Irudia. Gizonek arratsaldean egiten dituzten jarduerak



22 Irudia. Emakumeek gauean egiten dituzten jarduerak




ITURRIA: Norberak egin

Emakumeen moduan, goizez gehien egiten diren jarduerak hirugarren adineko gimnasia (%49) eta mantentze-igeriketa (%33) dira; arratsaldez batez ere spinninga (%79); eta gauez spinninga (%59) eta karatea (%23).

Azkenik, astean jarduerak egiten diren maiztasunari dagokionez, gizon zein emakume gehienek hiru egunez egiten dute, baina ezberdintasunak ez dira oso handiak: 254 emakumek eta 46 gizonek astean bi egunetan egiten dituzte, eta 273 emakumek eta 50 gizonek hiru egunetan⁹. Hala ere, zenbait ezberdintasun aurki daitezke egindako jardueraren arabera:

23 Irudia. Jardueren maiztasuna sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Emakume gehienek aerobic eta spinning astean bi egunez egiten dute, baina hala ere, kontutan izan behar da aukeraketa hau eskaintzaren arabera egiten dela gehien bat, hots, ikastaroak lehentasunaren arabera betetzen dira (azken aldian joera bi egun aukeratzea izanik) eta gainontzekoek libre dauden plazak hartzen dituzte. Beraz sexu bakoitzak jarduera bat aukeratzekoan dituen lehentasunak ez da egun, datu adierazgarria.

⁹ UKPk emandako datuak

Orohar emakume gehiagok ekintzaren bat astean hiru aldiz egiten dute (273) bi egunetan baino (254); gizonen arteko ezberdintasunak gutxienekoak dira (50ek hiru egun, 46k bi).

3.2.2. Kirolddegiko instalazio libreetako erabilera

Kirolddegiko instalazio libreetako erabilerari buruzko datu kuantitatiborik ez dago, beraz segidan kiroldegian lan egiten duten pertsonen (igerilekuko sorosle zein begiraleak, gimnasioko begiralea eta kirol teknikaria) pertzeptzioa eta usteak azalduko dira.

- **Gimnasioa:** Gimnasioko begirale baten aburuz, erabilerari dagokionez geroz eta ezberdintasun gutxiago dago emakume eta gizonen artean, nahiz eta oraindik gehien bat gizonek erabiltzen duten. Espazioen erabileran aldiz ezberdintasun argia somatzen da: emakumeek gehien bat aparatu kardiobaskularrak (bizikleta, korrika egiteko zinta,...) erabiltzen dituzte, eta gizonak aldiz, giharketa aparatuetan denbora gehiago pasatzen dute.

Bestetik, nahi izanez gero gimnasioko begiraleari lan-programa bat eskatzea posiblea da. Begiraleak dionez, gehien bat emakumeek eskatzen dute programa bat, izan ere, aparatuen erabilpenean ezagutza gutxiago baitituzte. BPXport enpresak, egun kiroldegiko jarduerak kudeatzen dituenak, geroz eta emakume gehiagok giharketa egin arren, gimnasioaren erabilpenean estereotipoak apurtu nahi dituela dio; emakumeak gimnasia ez joateko arraioa hein handi batean, gizonak bertan "matxakatzen" egotea da, izan ere, gerturatzeko lotsatu egiten baitira. BPXport enpresak gimnasia ahalik eta abonatu gehien joatea du helburu.



Talde-dinamiketan aipatu zuten, nahiz eta giharketa aparatuetan gehien bat gizonak egon, geroz eta emakume gehiago joaten direla ekintza hau egitera. Astigarragako kiroldegian *body bump* deritzon modalitate berri bat omen dago; aerobic pisuarekin egitean datza eta gelan ia gehienak emakumeak dira. Baliteke gutxinaka joera hori gimnasio barruan ere islatzea.

- **Igerilekua:** Ordu libreetan orohar gizonak erabiltzen dute gehien. Ordu-tegiaren arabera erabilpenean dauden ezberdintasunei dagokienez, goizeko lehen orduan gizon gehiago egoten da; goizeko hamarrak eta arratsaldeko laurak bitartean emakume gehiago; eta arratsaldeko lauretatik aurrera, berriz ere gizon gehiago. Aste buruetan ez daude hainbeste ezberdintasun, izan ere, familia osoak joaten baitira.
- **Pistak:** Gehienetan gizon-taldeek alokatzen dute, eta normalean, areto futboleko jokatzeko.
- **Frontoia:** Pisten moduan, gehienetan gizonak erabiltzen dute ordu-tegi librean.
- **Sauna:** Badirudi emakume eta gizonen erabilera nahiko parekatua dela.
- **Squasha:** Baita ere, gizon gehiagok erabiltzen dute emakumeek baino.



Beraz, erabilera libreko instalazioak gehien bat gizonak erabiltzen dituzte. Esan bezala, hau izan daiteke arrazoietako bat UKPko ekintzetan emakumeak gizonen bikoitza izateko, nahiz eta emakume eta gizonak kirola egiteko duten moduak ere eragin; gizonak ohitura handiagoa dute taldean elkartzeko areto futboleko edo palan jokatzeko; emakumeen kasuan aldiz, harremanak ekintzetan parte hartu izanaren ondorio izan ohi dira.

3.2.3. UKPz kanpoko partaidetzako kirola

Ikerketan parte hartu duten pertsona gehienek ustez, Hernanin kirol asko egiten da udal egitura edo kirol-elkarteen egituratik kanpo.

Gehien aipatzen den jardueretako bat ibiltzera joatea da. Hernanin jende asko, batez ere emakumeak, ibiltzera joaten da; batzuk haurrak ikastolan utzi ondoren eta beste batzuk bazkaldu ostean. Ohiko bideak Santa Barbara mendia, Urnieta eta Lasarterako bide zaharrak, Antziolatik Etxe-Berrirako bidea, Ergobirako bide zaharra eta Oialumeko aldea dira. Zehazki 70 eta 81 urte bitarteko emakume talde bat duela hamar urtetatik egunero joaten da ibiltzera. Ibiltzea obligazioa bihurtu dela diote, “ganbara garbitzeko”, buruz garbitzeko, lagunekin egoteko eta kolesterola zaintzeko asko laguntzen diela. Hernanin jende asko ibiltzera joaten dela diote, baina gehienetan bikoteka joaten direla.

Hernaniko biztanleriak egiten dituen beste jarduerak palan jokatu eta bizikletan ibiltzea dira. Bizikletaz leku askotatik joaten diren arren, dinamiketan diote Goizuetako bidea ohizkoena dela.



Mendiak ere errotze handia du herrian; Santa Barbara, Adarra, Aballarri eta Onyi mendiak jende askok igotzen ditu, baina badaude Pirineoetara aste buru pasa joaten diren kuadrilak ere. Halaber, Santa Barbaran eskalatzeko aukera ere erreferentzia da Hernanin zein Gipuzkoan.

Aipatu bezala, Hernaniko bigarren mailako bideetatik korrika egitera joaten den jendea ere badago, batez ere igandetan. Talde-dinamiketan parte hartu duten zenbait emakume korrikalarik (kiroldegiko erabiltzaileak ere badira) diote asko nabaritzen dela Behobia-San Sebastián proba urbiltzen ari dela, jende askok entrenatzen duelako. Izan ere, 2006ko edizioan 127 hernaniar atera baitziren, 114 gizon eta 113 emakume¹⁰.

Honen harian, badaude urtero Hernanin Club Deportivo Hernanik biztanlerian atletismoa sustatzeko antolatzen dituen bi froga: *Karabeleko Krosa eta Azeri Bila* lasterketa herrikoia. Azeri Bila ekainean egiten da eta ibilbideak 600 eta 4.500 metroko luzera du kategoriaren arabera. Azpiko kategorietan (benjamina, alebina, infantila eta kadetea) ez dago sailkapenik; saria litxarkeri-poltsa bat da partaide bakoitzarentzat. Senior eta beteranoen kategorietan saria ere berera da emakume zein gizonentzat: kamiseta bat partaide bakoitzarentzat, kategoria bakoitzeko lehen hiru postuetakoentzat garaikurra eta guztien artean beste zenbait sarien zozketa¹¹.

Azkenik herriko zaharren jarduera fisikoa aipatu behar da, izan ere, kiroldegian gimnasia egiten duten 135 pertsoez gain, *Centro Cultural de la Mujeres* bidez gimnasia egiten duen emakume talde bat ere badago. Beraz esan liteke, kolektibo hau ere sentsibilizatua dagoela jarduera fisikoak dituen onurekin.

¹⁰ www.kronika.net-en eskuratutako informazioa

¹¹ CD Hernanik –atletismo sailak- emandako informazioa eta www.azeribila.com web orritik eskuratuta



3.3. Errendimenduko kirola

3.3.1. Elkartek, lizentziak eta kategoriak

Hernanin guztira 21 modalitate multzokatzen dituzten 15 kirol elkarte daude. Egun herrian 1.248 federazio-lizentzia daude, 222 emakumeenak dira eta 1.026 gizonenak. Jarraian elkartek, hauen sailak eta lizentzia kopurua azaltzen dira:

12 Taula. Hernaniko kirol elkartek eta federazio-lizentziak

ELKARTEA	MODALITATEA	LIZENTZIA KOPURUA		
		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Hernani Club de Rugby	Errugbia	0	92	92
C.D. Hernani	Atletismoa	7	16	23
	Boloak eta toka			0
	Futbola	32	144	176
	Pelota	16	43	59
Gimnasia Erritmikoa Elkartea	Gimnasia Errit.	12	0	12
Hernani Kirol Elkartea	Saskibaloia	0	20	20
	Judoa	3	18	21
	Igeriketa	14	12	26
	Boleibola	18	21	39
	Waterpolo	12	22	34
Hernani Xake Joku Elkartea	Xakea	0	10	10
Hernaniko Arraun Elkartea	Arrauna	0	14	14
Hatzi Klimbers Mendi Kirol Elkartea	Eskalada			
Mendiriz Mendi Elkartea	Mendia	107	268	375
Txantxangorri	Ehiza eta arrantza	1	306	307
	Tiroa	0	30	30
Elur Txori	Boloak eta toka			0
S.D.J.O.C.C.	Txirrindularitza			0
Txirta Hernani K.E.	Tiroa			0




Ur-Mia Bolari Taldea	Boloak eta toka			0
C.D. Fútbol sala Yone	Areto futbola	0	10	10
Hegatz actividades subacuáticas	Urazpiko jarduerak			
GUZTIRA		222	1.026	1.248

ITURRIA: www.kirolzerbitzua.net/klubak eta UKP

Gizonen lizentzia korurua (%82) emakumeena (%18) baino askoz handiagoa da.

24 Irudia. Federazio-lizentzien ehunekoak sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Hala eta guztiz ere, analisisian mendiko lizentziak kanpoan utziz gero ehunekoak %87 eta %13 dira hurrenez hurren, izan ere, mendiko lizentziak guztien %30 baitira; hain zuzen, emakumeen lizentzien %48 eta gizonen lizentzien %26.


Kontutan izan behar da mendian federatzeko arrazoiak ez direla beste federazioetan lizentzia egiteko arrazoi antzekoak. Askotan, beste modalitateetako kirolariek lizentzia hori seguruak dituen estaldurengatik egiten dute. Alde batetik, mendira joateko ohitura dutenek lizentzia hau egiten dute lesio bat leku arriskutsu batean egiteak dituen ondorioengatik egiten dute eta bestetik, bizikletan ibiltzera joaten direnek edo arriskutsuagoak diren kirolak egiten



dituztenek. Beraz beharrezkoa da gai hau kontutan hartzea federazio-lizentzien kopuruari buruz ondorioak ateratzeko orduan.

Orokorrean, lizentzia guztiak kontutan hartuz hernaniko biztanleriaren %7 federaturik dago; emakumeen %2,3 eta gizonen %10,6.

25 Irudia. Federaturik dagoen biztanleriaren ehunekoa




ITURRIA: Norberak egina

Hernaniko federazio-lizentzia gehienak lau krial modalitateetan biltzen dira: mendia, ehiza eta arrantza, futbola eta errugbia. Kirol hauek gizonen 810 lizentzia dituzte eta emakumeen 140.



26 Irudia. Kirol-modalitate bakoitzeko lizentziak sexuaren arabera




ITURRIA: Norberak egina


Ikus daitekeen moduan, Hernaniko elkarteetan oso emakume gutxi dago gizonekin alderatuta. Tiroan, errugbian, arraunean, areto futbolean, saskibaloian eta xakean (10 modalitateetatik 6n) ez dago emakume bakar bat bera ere, eta ehiza eta arrantzean emakume batek eta 306 gizonek dute lizentzia, hau da, anekdota hutsa.

Emakumeen federazio-lizentziak batez ere mendian, futbolean eta boleibolen daude:

27 Irudia. Emakumeen lizentzien banaketa



28 Irudia. Emakumeen lizentzien banaketa mendia alde batera utzita



ITURRIA: Norberak egina



Alde batetik oso deigarria da emakumeen artean mendiak duen garrantzia, eta bestetik, mota askotako kirolak egiten dituztela. Gehien bat taldeko kirolak egiten dituzten arren, deigarria da saskibaloian ez egotea emakumeen taldea, izan ere, aurrerago ikusiko den moduan eskola kirolean modalitate honetan partaidetza handia da.

Gizonek bestalde, mendia eta ehiza eta arrantza dira gehien egiten dituzten kirolak:



29 Irudia. Gizonen lizentzien banaketa

30 Irudia. Gizonen lizentzien banaketa mendia eta ehiza eta arrantza alde batera utzita



ITURRIA: Norberak egina

Gizonek kirol modalitate asko egiten dituzten arren, futbola (%31) eta errugbia (%20) dira lizentzia kopuru handiena dituzten kirolak. Ondoren pelota (%10) eta tiroa (%7) dira gehien egiten diren kirolak. Gainontzeko modalitateak % 2 et %5 artean daude.

Hernanin egiten diren taldeko kirolak kontutan hartuta guztira lehiaketako 22 talde daude, 17 gizonenak eta 5 neskenak:




13 Taula. Federazio-talde kopurua esparrua tea sexuaren arabera

ELKARTEA	KIROLA	ESPARRUA	EMAKUMEEN TALDE KOP.	GIZONEN TALDE KOP.
Yone Boutique	Areto futbola	Probintziala	0	1
Hernani K.E.	Waterpoloa	Autonomikoa	1	1
	Saskibaloia	Probintziala	0	2
	Boleibola	Autonomikoa	0	1
	Boleibola	Probintziala	2	1
CDH	Futbola	Probintziala	2	6
	Futbola	Autonomikoa	0	1
HCR	Errugbia	Estatu maila	0	1
	Errugbia	Autonomikoa	0	3
GUZTIRA			5	17

ITURRIA: UKP

Herriako talde kiroleko zazpi modalitateetatik soilik hirun daude nesken taldeak: waterpolon, boleibolen eta futboleant.

31 Irudia. Talde kopurua kirol-modalitatea eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina



Hala ere, kategoria bakoitzeko talde kopuruari so eginez gero gizonen taldeak kategoria guztietan daudela ikus daiteke; emakumeenak ostera dispersio handia azaltzen dute errendimenduko egituran:

14 Taula. Federazio-talde kopurua kategoria eta sexuaren arabera

MODALITATEA	INFANTILA			KADETEA			JUBENILA			NAGUSIA			GUZTIRA		
	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T
Saskibaloia					1	1		1	1				0	2	2
Futbola		2	2	1	2	3		2	2	1	1	2	2	7	9
Areto futbola											1	1	0	1	1
Errugbia					1	1		1	1		2	2	0	4	4
Boleibola					1	1	1		1	1	1	2	2	2	4
Waterpoloa										1	1	2	1	1	2
GUZTIRA	0	2	2	1	5	6	1	4	5	3	6	9	5	17	22

ITURRIA: UKP. Norberak egina

Kirol teknikariak zein entrenatzaile batek talde batean parte hartze esperientziaren garrantzia azpimarratzen dute. Jarduera fisikoa egite hutsa positibotzat hartzen duten arren, talde batean parte hartzeak norbanakoen bizitzarako funtsezkoak diren balioak garatzea ahalbidetzen duela uste dute: partekatzea, lankidetzan aritzea edo laguntzea. Talde-dinamiketan diote kirola taldean egitea oso ezberdina dela bakarka egitearekin alderatuz; taldekoak ardura handiagoa eskatzen du, taldekideekiko lotura eta sakrifizio gehiago, baina onura eta taldeko partaide izateko sentimendua oso pozgarria dela. Beste emakumeek ere bai, kirolak harreman sozialak garatzeko espazioa izan dela diote; egun kirola egiteko modua ezberdina dela, indibidualistagoa... “lehen, taldean jokatzeko nuenean, kirola kendu eta eman egiten zidan aldi berean; elkartu ginen lagun taldearekin oso ondo pasatzen nuen, kirolek kanpo planak egiten genituen...”.



Honen harian, dietetikako zentro batetako arduradunak egun kirola egiteko moduaz hitz egin zuen; estetikarekin eta argaltze nahiarekin gehiegi lotzen da. Bere ustez, kirola norbere gorputza, lagunak edota naturarekin dugun esperientzia atsegina izan behar da. Halaber, ez da ahaztu behar kirolak duen balio soziala.

Bestalde, bakoitzak beretzat egokia den kirola bilatu beharko lukeela dio, hau da, batzuetan norbere ongizatean batera laguntzen ez duten kirolak aukeratzen dira. Gaur egun erritmo azkarrean bizi gara eta antsietate maila altua duten pertsonen ez zaie komeni esaterako, aerobiceko klase batera joatea. Funtsezkoa da bakoitzak jarduera fisikoaz gozatzeko norbere modua bilatzea.

Frogatu den moduan Hernaniko errendimenduko kirolean oso emakume gutxi dago, are gutxiago mendiko lizentziak ez badira kontutan hartzen. Talde-dinamiketan diote gizonen urte gehiagoz egiten dutela errendimenduko kirola, beraz emakumeek lehenago uzten dutela kirola, batez ere errendimendukoa. 14 eta 15 urterekin neska askok jarduera fisikoa uzten dute eta gero, aurrerago, bueltatu egiten dira. Ziurrenik “kirola egiteak duen garrantziaz ohartzen gara, edo kirolaren falta sumatzen degu,... baina bueltatu egiten gara”. Salbuespenak salbuespen, oso arraroa da Hernaniko errendimendu kirolean 23 urte baino gehiagoko emakumeak topatzea, alabaina, ohikoa da 28 edo 29 urteko gizonak elkarrekin egotea.

Bestalde, Hernaniko elkarte gehienak boluntariorazan oinarritzen dira eta gizonen osatzen dituzte. UKPk emandako datuetatik, Hernanin zuzendaritzetan emakumeak dituzten hiru elkarteak Hernani Kirol Elkarte, Mendiriz Mendi eta Gimnasia Erritmikoa Elkarte dira. Gimnasia erritmikoko elkarte salbu, honetan guztiak emakumeak baitira, emakume kopurua gizonena baino handiagoa den elkarte bakarra Hernani Kirol Elkarte da.



Kirol teknikariaren hitzetan, egungo kirol elkartearen ereduak tradizionala da. Geroz eta zailagoa da norbere denbora librean elkarrekin batean pasatzeko gogo duen norbait topatzea eta gainera, errendimenduz at dauden kirol jarduerak aukeratu duten pertsonen kopurua geroz eta handiagoa da. Elkarrekin egiteko soziala eta kudeapen ereduak hausnartu beharko lituzkete, bai eta zerbitzuak gehitzeko eta kalitate tekniko jarraia bermatu ahal izateko kideei kuota bat kobratu ere. Honen harriz, elkarrekin azken urtetan kirola egiteko moduan egon diren aldaketak aipatu dituzte; orokor mugimendu sozialak, eta ondorioz kirol elkarteak ere bai gain behera etorri dira eta joera kirola bakarka egitea da.

Azkenik, talde-dinamikan zein elkarrekin Hernaniko eskubaloien desagerpena aipatu da; nesken kirol eskaintza galera handia izan dela diote. Eskubaloia beti izan da erreferentzia Hernanin zein Hernanitik kanpo eta pena ematen die egun ez egotea eskubaloian jokatzeko aukerarik herrian.

3.3.2. Hernaniko elkarteetan emakumeen egoerari buruzko pertzeptzioa

Elkarrekin zein talde-dinamikan elkarteetan zenbait aspektutan emakumeen diskriminazio egoera nabarmendu dute.

Gehien aipatu den gaietako bat entrenamendu eta partidetan ordutegi banaketa da. Futbolaren kasuan esaterako, mutilen infantil taldeak lehenetsuta du nesken kadete taldearekiko, eta emakumeen senior taldeak partida gehienak igande goizetan jokatu dituzten larunbat arratsaldeak goren mailarako eta liga nazionalerako erreserbatuak daudelako. Zentzuzkoa da elkarrekin bateko talde nagusiak, goren mailako (senior mutilak) taldea kasu honetan, beste taldearekiko lehenetsuta izatea, baina ez gazteen liga nazionala emakumeen seniorren



aurretik egotea. Bestetik, boleiboleko jokalariek diote mutilen aurretik jokatzeari suertatu zaienean mutilen hasera ordurako bukatzeko eskatu zaiela. Kontutan izan behar da boleiboleko partiduen iraupena aldeztu aurretik jakitea oso zaila dela. Halaber, neska hauek diote, mutilen moduan Euskal Ligan jokatzeko zutenean beti igande goizetan jokatu behar zutela.

Instalazioen esleipena ere oztopotzat hartzen da kirola egiteko orduan. Futboleko nesken talde nagusiak hiru egunetatik bitan bigarren mailako zelai batean entrenatzen du; zelai honetan argiztapena ez da egokia eta ateetan ez daude sareak. Neska hauek ere bai, mutilak dutxatu arte itxoin behar dute beraiek dutxatzeko, izan ere, dutxek bi aldagelak lotzen baitituzte. Lehenago dutxatu nahi izanez gero entrenamendua lehenago amaitzeko aholkatzen diete. Pelotan jokatzeko duten nesken aburuz, beti beraiei ematen dizkiete entrenatzeko ordutegi okerrenak, nahiz eta kiroldegiko frontoia obretan dagoenetik mutilek ere inguruko frontoietan entrenatu behar izan duten. Boleiboleko neska nagusien taldeak pistaren erdia neska jubenilekin banatzen dute eta mutilek beste erdia osorik talde bakarrarentzat dute.

Aipatu behar den beste aspektu bat harroren banaketa da. Aurten futboleko neskei harropa berria eman dieten arren, ez dauzkate guztientzako behar bezain jertse haina; beroketa eta gero jokalaria titularrek eserlekuan geratzen direnei jertseak ematen dizkiete. Mutilei harropa guztia garbitzen diete entrenamendu zein partidetan; neskei jokatzeko elastikoa eta jertsea partidetan. Bestalde, pelotako neskek diote haseran ez zitezela elkarteko jertse ofiziala eman (mutilei bai), orduan bere kontu beste bat lortu zuten. Aurten elkarteko jertsea emateko asmoa omen zuten baina mutilak kexatu egin dira bazeukatela esanez, ondorioz, infantilei eman dizkiete elkarteko jertse ofizialak. Atletismoko elkartean atleta guztiei eman ziete harropa, baina jertseen tamaina handiegia da neskentzat.



Herriko nesken taldeetan entrenatzaile falta dago. Boleiboleko kasuan bi jolari arduradun daude entrenamendu eta partidetarako; waterpoloaren kasuan nesken eta mutilen taldeak entrenatzaile bera du; eta futbolaren kasuan, nesken entrenatzaileak ez du ezer kobratzen eta mutilenak aldiz bai.

Hernaniko elkarteetan emakumeek kirola berdintasunean egin ahal izateko oztopo guztiak bat datoz Matilde Fontechak (2003) aipatutakoarekin: “federazioetan eta elkarteetan emakumeen diskriminazioa ez da soilik ekonomia gaien arabera adierazten, aitzitik, egitura mailako erabakien arabera ere bai. Emakumeei ordutegi deserosoak eta urrutien eta egoera txarrean dauden instalazioak, eta kualifikazio gutxiena duten entrenatzaileak esleitzen dizkiete.”.

Azkenik esan behar da emakume kirolarien diskriminazioa ez dela soilik eguneroko gorabeheran aurkitutako oztopoen arabera gauzatzen, izan ere, kirola egiten hasteko ere oztopoak aurkitzen baitituzte. Aurreko 2005/2006 denboraldiak Hernaniko Kirol Elkartearen saskibaloiko sailak soilik mutil gazteen talde bat zuen. Antza neska kadeteen talde bat ateratzeko lagun talde bat bazegoen baina elkarteak memento horretan nahikoa egitura ez zuelako eta lehendabizi mutilen kate osoa lortu behar zutelako taldea ez ateratzea erabaki zuen. Hala ere, jokatzeko jarraitu nahi zuten neskei Astigarragara joateko aukera eman zieten. Saskibaloiko elkarteak 2006/2007 denboraldian mutilen talde kadetea atera du.

Antzeko beste adibide bat futboleko elkarteak da; hasiera batean nesken talde infantila ateratzea pentsatu zuen arren, azkenean ez zuen atera batetik ez zegoelako neska infantilentzako errendimenduko kategoriarik, eta bestetik, hiru ikastetxe ezberdinetan ekipo bana ateratzea lortu zelako. UKPk nahiago zuen hiru talde hauek eskoletan jokatzeko, futboleko elkarteak talde bat ateratzeko neskak hautatzea baino.



3.4. Eskola kirola

Hernaniko Foru Aldundiak ezarritako ildoak jarraituz, Udal Kirol Patronatuak eta ikastetxeek osatzen duten Hernaniko Eskola Kirola Batzordeak urtero herrian burutuko den eskola kirola programa diseinatzen du. Kirol eskaintza Hernaniko kirol azpiegituraren baitan egiten da, hau da, herrian dauden modalitateen arabera egiten da eta kirol elkarteen laguntza teknikoaz baliatuz.

Eskolaz kanpoko hautazko jarduera hau 9 eta 14 urte bitarteko eskola-umeek burutzen dute, hiru kategorietan banatuta: benjaminak (9-10 urte); alebinak (11-12 urte); infantilak (13-14 urte); eta kadeteak (15-16 urte).

Gipuzkoako herrietako programetan derrigorrez benjamin eta alebin kategorietan kirol modalitate ezberdinak egin behar dira, eta infantiletan taldeko jarduera bat aukeratu behar dute, bakarko beste batekin konbinatu dezaketeelarik.

Jarraian Hernaniko egungo eskola kiroleko programa agertzen da taula batean:



15 Taula. Hernaniko eskola kiroleko programa 2006/2007

KATEGORIA	ZIKLOA	NESKEN		IZAERA
		MODALITATEAK	MUTILEN MODALITATEAK	
Benjamina	bakarra	atletismoa, saskibaloia, futbola, igeriketa, pelota, errugbia	atletismoa, saskibaloia, futbola, igeriketa, pelota, errugbia	nesk./mut.
Aleбина	1	Atletismoa edo saskibaloia edo boleibola + beste bat, pelota bada	saskibaloia edo atletismoa edo pelota (bi hartu daitezke bat pelota bada)	nesk./mut.
	2	futbola	futbola	
Infantila	bakarra	aukera askea-gehienez taldeko 1 + bakarkako 1	aukera askea-gehienez taldeko 1 + bakarkako 1	nesk./mut.

ITURRIA: UKP

Eskola kirolean izena ematen duten benjamin guztiek derrigorrez programan azaltzen diren modalitate guztiak egin behar dituzte, hau da, atletismoa, saskibaloia, futbola, igeriketa, pelota eta errugbia. Lehen kategorian honetan bi talde zeuden; hirugarren mailako taldea eta laugarren mailakoa, biak mistoak. Konturatu ziren nesken rola oso pasiboa zela ekintzetan eta ondorengo kategorietan (alebina eta infantila) jarrera aktiboagoa zutela ikusirik, sexuen banaketa benjamin kategorian ere egitea erabaki zuten. Gaur egun bi talde daude ere bai, baina ez ikasturtearen baitan ezberdinduta sexuaren arabera baizik.

Bestetik, alebin mailako programan bi ziklo daude: lehenengoan neskek atletismoa, saskibaloia eta boleibolaren artean aukeratu dezakete eta beste kirol bat, baldin eta bigarren hau pala bada. Patronatuak neurri honekin bertako kirolak sustatu nahi ditu. Mutilen kasuan, aukera saskibaloia, atletismoa edo pelota dira, baina nahi badute bi kirol egin ditzakete baldin eta bietako bat pelota bada. Bigarren zikloan, neskek zein mutilek futbola egiten dute, futbola gustoko ez duten haurrak salbu, izan ere, hauei aurreko zikloko kirolarekin jarraitzen uzten baitzaie. Bigarren zikloan



soilik futbola egoteko arrazoia da, beste modalitateek ez dutela nahi futbolarekin lehiatu partaideak lortzeko.

Azkenik, infantil mailan neska-mutil bakoitzak nahi duen kirol modalitatea aukera dezake, baina kirol bat baino gehiago egin nahi izanez gero derrigorrezkoa da bat bakarkakoa izatea eta taldekoa bestea.


Egungo partaidetza hernaniko eskola-biztanleriari dagokionez %60,3 da, %56,7 neska eta %63,8 mutil. Jarraian kategoria bakoitzeko partaidetza zehazten da:

16 Taula. Hernaniko eskola kiroleko programako partaidetza kategoria bakoitzeko biztanleria eta sexuaren arabera

	NESKAK	%	MUTILAK	%	GUZTIRA	%
Benjamina	111	61,7	118	75,2	229	68,0
Alebina	123	66,8	145	76,7	268	71,8
Infantila	57	38,3	60	37,5	117	37,9
GUZTIRA	291	56,7	323	63,8	614	60,3

ITURRIA: Gipuzkoako Foru Aldundia. Norberak egina

32 Irudia. Eskola kiroleko programan partaidetza. 06/07 Denboraldia




ITURRIA: Norberak egina



Datu deigarriena alebin eta infantil kategorien artean dagoen ezberdintasuna da. Beherakada honen arrazoiak interpretatzeko orduan beharrezkoa da kontutan hartzea infantil adineko zenbait eskola-ume kirol elkarte batean jokutzen ari direla, beraz, federazio-lizentzia dutela. Kasu horiek ez daude datu hauetan.

33 Irudia. Partaide kopurua kategoria eta sexuaren arabera.

06/07 Denboraldia



ITURRIA: Norberak egina

Maila guztietan mutilen lizentzien kopurua neskena baino handiagoa da, nahiz eta infantil mailako ezberdintasuna gutxienekoa izan (3 lizentzia). Lehenago aipatu den moduan, CD Hernanin mutilen bi infantil talde daude.

Hernaniko partaidetza ratioak Gipuzkoako partaidetza eta biztanleriarekin alderatuz, orohar Hernaniko partaidetza Gipuzkoakoa baino zertxobait baxuagoa dela esan liteke:




17 Taula. Eskola kiroleko partaidetza Gipuzkoan kategoria bakoitzeko biztanleria eta sexuaren arabera

	NESKAK	%	MUTILAK	%	GUZTIRA	%
Benjamina	3.545	64,7	4.897	84,4	8.442	74,9
Alebina	3.569	70,1	4.837	86,5	8.406	78,7
Infantila	2.644	46,6	2.945	49,9	5.589	48,3
GUZTIRA	9.758	60,1	12.679	73,3	22.437	66,9

ITURRIA: Gipuzkoako Foru Aldundia

Egiten diren kirolei dagokienez, benjamin mailako 111 neskek eta 129 mutilek programan dauden kirol modalitate guztiak egiten dituzte, hain zuzen, atletismoa, saskibaloia, futbola, igeriketa, pelota eta errugbia. Alebin mailan 123 neskek eta 145 mutilek egiten dute kirola, kirol batean edo bitan, baina bi izanez gero, bat pelota izan behar da derrigorrez. Segidan alebin mailako neskek gehien aukeratutako modalitateen irudi bat agertzen da:

34 Irudia. Alebin neskek gehien aukeratutako kirol-modalitateak




ITURRIA: Norberak egina



Neskek gehien egiten dituzten kirol modalitateak futbola, boleibola eta saskibaloia dira hurrenez hurren. Hiru modalitate hauek talde-kirolak dira eta boleibola ezik besteak, Euskadiko biztanleriaren gehiengoak egiten dituen talde-kirolak dira. Gehien aukeratzen dituzten beste kirolak pala, atletismoa eta gimnasia erritmikoa dira. Futbola bigarren zikloan eskaintzen den modalitate bakarra izanda, litekeena da beste egoera batean izango lituzkeenak baino lizentzia gehixeago izatea.

35 Irudia. Alebin mutilek gehien aukeratutako kirol-modalitateak




ITURRIA: Norberak egina

Neskak bezala, mutilek gehien aukeratutako modalitateak ere saskibaloia eta futbola dira, bai eta pelota eta judoa ere.

Bestetik, infantil mailari dagokionez, partaide kopurua 57 neska eta 60 mutil dira.

36 Irudia. Eskola-lizentzia infantilak



ITURRIA: Norberak egina

Errugbia nagusi da, batez ere, alebin mailan dagoen postuan kontutan hartuz gero (seigarrena). Bestetik, datuen arabera futboleko infantil mailan soilik neskek agertzen dira, beraz, mutilak jada futboleko edo pelotako lkartean daudela egiaztatzen da. Futbola eta pelotako elkarteetan hartzen ez dituzten mutilak sarritan ondoko herrietara joaten dira jokatzera, izan ere, eskola mailan egiten jarraitu dezaketeen arren, nahiago dute elkarte batean federaturik jokatu.

Kategoria honetan errugbia hainbeste hazitzeko arrazoia futboleko elkarteetan edo beste kiroletan hartu ez dituzten mutilak hartzea izan daiteke.

Aipatu behar den beste kontu bat da, kirol modalitateen aukeraketa oraindik ere estereotipoen arabera egiten dela; gimnasia soilik neskek egiten dute, boleibolen nesken kopurua mutilenaren bikoitza da eta errugbian ez dago neska bakar bat bera ere. Modalitateen aukeraketan estereotipazioa egotea oztopo bat da kirola egiteko, alde batetik, aukeraketa herriko kirol elkarteetako modalitateek baldintzatzen dutelako eta bestetik, oraindik aurriritzi asko daudelako mutilek kirol femeninoetan (gimnasia, boleibola) parte hartzeko eta neskek maskulinoetan



(errugbia, futbola) parte hartzeko. Orohar infantil kategoriatik kadeterako saltoan eskaintza gutxiago dago neskontzat; nahiz eta azken urtetan hobetu egin den, oraindik egiteko asko dago, batez ere elkarteen aldetik, honegatik apostu egin beharko bailukete.

Esan bezala, urteko eskola kiroleko programa Eskola Kiroleko Batzordean diseinatzen da. Ikastetxe bateko eskola kiroleko koordinatzailearen hitzetan, ikastetxeek garrantzia gehiago eman beharko lieke kirolari. Egiten den lana ona den arren, hobetu daitekeela uste du. Batzorde honek izaera ofiziala izan beharko luke eta kirol jarduerarekin zerikusia duten arazo gehiago konpontzen saiatu beharko litzateke.

Kirol guztiek tratu bera izan beharko lukete Batzordean, baina tamalez, hori ez da gertatzen. Lehen futboleko jokalaria eta entrenatzaile hoberenari sariak banatzen zitzaizkieten, baina hau jada bertan behera utzi zen. Koordinatzaile honen hitzetan, sariak modalitate guztien artean irizpide homogeenok ezarriz banatu beharko lirateke, edo bestela, behin denboraldia amaituta partaide guztiekin festa bat egitea eta programan parte hartu duten guztiei sari bat banatzea.

Gehiegizko lehiakortasunak ere eragina du bai neska-mutilengan, bai eta lehiaketa berarengan ere. Dietetika zentroko psikologoaren ustez haurrak “presio-eltze” bat dira eta tensioa eta antsietatea bideratu beharra dute. Kirola oso baliagarria da horretarako, beti ere modu pedagogikoan eta osasuntsuan egiten bada. Egungo kirol-kultura ez da oso egokia horretarako eta gainera, haur askok lo egiteko arazoak dituzte pairatzen duten antsietatea dela eta.

Kirol teknikariari eskola kiroleko begiraleen zerbitzua profesionalizatzeaz galdetzean (egun 45 pertsonetatik 10 batek dute titulua), egokia izango litzatekeela



dio, baina beharrezkoa dela horretarako aurrekontua edukitzea. UKPk benjamin mailarako kirolarekin zerikusia duten ikasketak egiten ari diren gazteak kontrataztea proposatu zuen, baina ikastetxeek nahiago izan zuten norbere lehengo ikasleriarekin jarraitzea lan hau egiteko. Talde dinamiketan parte hartu zutenek uste dute oso garrantzitsua dela entrenatzaileak modu jarraiean egotea hurrekin, halaber diote, egungo planteamenduak ez duela eskola kiroleko helburuekin koherentziarik. Gainera, uste dute ikasle ohiek lan hau modu puntualean egiten dutela, eta askotan ez dutela ez bokazio ez prestakuntza profesionalik.

Bestetik, eskola kiroleko arduradunek uste dute askotan gurasoek erraztasun handiz uzten dituztela haurrak begirale gazteen eskuetan. Badaude jokabide arazoak dituzten zenbait ume ikastolan etengabeko arreta behar dutenak; ondoren eskola kirolak kontrola gabeko haurtzaindegi bat ematen du, izan ere, “hamazazpi urtetako entrenatzaile batek bi ikasturte ezberdinetako hamalau haur izan ditzake”... eta ez da erraza hori kontrolatzea.

Ikastetxe bat edo beste, egun begirale guztiek berdin kobratzen dute, Aldundia, Patronatua eta ikastetxeek sortutako pote batetik. Hala ere, prestakuntza maila ez da hobetu.

Eskola kirolak duen hezkuntza funtzioak kontutan izanik, beharrezkoa da gai hau berriz ere mahai gainean jartzea eta laguntza tekniko profesionalizatu batez baliatzea. Alternatiba bat Buruntzaldearen bidez mankomunitatean parte hartzen duten udal guztietan eskola kirola koordinatuko lukeen enpresa bat kontratatzea izan liteke. Norbere herriko langile prestatuak kontratatzeko baldintzak Patronatuetan adostu zitezkeen.



Hala ere, beharrezkoa da kirola “debaldeko zerbitzu publiko”tzat hartzeko kultura aldatzea. Gaur egun zenbait ikastetxeetan ikasleek eskola kirola antolatzeko erabiltzen den kopuru jakin bat ordaitzen dute, eta bestetan, gurasoen elkarteko potetik kudeatzen da. Lehenago esan bezala, ikastetxe, UKP eta Aldundiak emandako diruaren pote bat dago begiraleei eta epaileei ordaintzeko, eta sortu zitezkeen beste gastu batzuei aurre egiteko. Harropak eta beste ordaintzeko, ikastetxeek zuzenean Aldunditik jasotzen dute dirua.

Bestalde, ezinbestekoa da gurasoak norbere haurren kirol esperientzian duten garrantziaz konturatzea. Adin hauetan jokabidearen eredu eta laguntza iturri dira. Elkarrizketatutako zenbaitek gurasoen irudiaz mintzatu dira, eta esan dute, larunbat batzutan neska-mutilak ez direla partidetara joaten gurasoek ez dutelako ordu horietan altsa nahi edota euria egiten duenean eskola kiroleko partaidetza asko gutxitzen dela.

Gurasoek baloreak ez dituzte soilik kirola egiteko jarreraren bidez transmititzen, aitzitik, kirol saioetan duten jokabidearen bidez ere bai. Elkarrizketatutako zenbaiten ustez gehiegizko lehiakortasunak eta etxean goi mailako kirolari bat izateko nahiak ere eragina du seme-alabek kirolarekin duten harremanean.

Askotan gainera, ikastetxetik kanpo trebetasun hobeak dituztenek egiten dute kirola, izan ere, elkarteetatik hautatzen baitituzte. Trebetasunal edozein direla ere, ezinbestekoa da pertsona guztiei aukerak ematea. Futbolean hautatutako eskola-umeek osatutako mutilen bi talde daude; garrantzitsua da jokatzeko jarraitu nahi zuten eta “zintzilik” geratu direnentzat alternatiba bat egotea, kirola egiteko aukera ahalik eta eskola-ume gehien artean zabaltzeko.



Beraz, badirudi ikasturtetik ikasturtera hobetzen ari den eskola kiroleko sistema bat izateagatik ere, oraindik lehen mailako arreta behar duten zenbait aspektu daudela; entrenatzaileen eta gurasoen irudia, Hernaniko eskola kiroleko oinarrizko bi alderdi dira.



4 KIROL JARDUERAREN HASTAPENA ETA UZTEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDAGAI SOZIALAK

Dokumentu honetan zehar aipatu da kulturak eta baloreek kirol jarduerarengan eta kirol ohiturengan duten eragina. Elkarrizketatutako gehienek egungo gizartearen oinarritzko bi alderdi azpimarratu dituzte: erosotasuna eta konpromezu falta.

Orohar mugikortasun soziala gutxitu dela uste dute. Iritzi honek egungo kiroldegiko jardueretako partaidetzarekin alderatuz kontraesana dirudien arren, behar bada mugikortasun eza haur edo gazteen artean zedarritu behar da.

Hernanin batezbeste 100 bezero dituen dietetika zentro bat dago. Kopurua denboran zehar egonkorra da, banakoak aldatzen doazen arren. Orohar kasuen %75 emakumeak eta %25 gizonak dira. Ohiko profila emakumea da, 30 eta 50 urte artekoa, garbitzaile edo zaintzailea. Hala ere, geroz eta gehiago dira dieta bat eskatzen duten gazteak (emakume zein gizonak).

Zentro honetako arduradunak dio gazteen ardura handiena elikadura arazoak direla, hau da, janariarengatik ama eta semearen arteko eztabaidak: “hau ez zait gustatzen, beste hori ezta ere,...” Orokorrean kirola gutxi egiten da eta elikadura-ohiturak ez dira egokiak. “Gurasoek ezin dute pizza afaldu eta semeari bera dietan dagoela eta hori ezin duela jan esan,... Eredu izan behar dute eta ez lituzkete mezu horiek eman behar”... “motibazioa dieta da eta ez kirola, bizi garen gizarte sedentario honetan”.



Talde-dinamiketan ados daude adierazpen horiekin; uste dute jendeari ez zaiola nekatzea gustazten, “oinez ibiltzeko ohiturarik ez duten haurrak hezitzen ari gara ikastetxeko ateraino kotxez eramaten ditugulako”. Atleta baten ustetan, jendea korrika egiten hasten denean erraz amore ematen du ondorioak berehala ikusi nahi dituelako, eta askotan, korrika egiten gozatzeko beharrezkoadak da lehenago *sufrimendu* fase bat izatea lehendabizi. Jendeari askotan jaten uztea kirola egitea baino gutxiago kostatzen zaiola uste dute.

Elkarrizketatutakoek maiz aipatzen duten beste gai bat da, egungo gazteek lehenagoen aldean espektatiba ezberdinak dituztela: “ni gaztea nintzenean nere biziak ikastola, aste buruan partida jokatu eta herriko kirola ikusten pasatzea zen”. Egungo gazteria gehiago aspertzen dela uste dute, motibazio bakarra larunbat gauean ateratzea dela... “guk ere parrandak egiten genituen, baina kirolaren eragingarria genuen”. Parranda ez da kirolarekin bateraezina, ez eta ikasketak ere, azken hau, neskek kirola uzteko ematen duten arrazoi nagusienetakoa izanik.

Aste burua libre izate nahia edo lagunak eta familiarekin denbora gehiago pasatzeko nahia kirola uzteko arrazoiak dira baita ere, batez ere errendimenduko kirola, izan ere azkenean sakrifiziotzat hartzen baita.

Hernaniko UKP konturatu zen bigarren hezkuntzako neska gazteek kirola gutxi egiten zutela, hortaz ikastetxetik-ikastetxe joatea erabaki zuen, neskei egitea guztatuko litzaiekeen jardueragatik galdezka. Aerobic eta rokodromoko eskolak antolatu zituzten, baina emaitza ez zen UKPk espero zuena izan, izan ere, azkenean beste kirolak egiten zituztenek eman zuten izena jarduera hauetan, hortaz, programa bertan behera uztea erabaki zuten.



Beraz, kirola ez egin edota kirola uzteko arrazoiak norbanakoen kultura eta inguru sozialarekin erlazionaturik dago. Jarraian kirola egin eta uztearekin zerikusia duten zenbait aldagai sozialak azaltzen dira:

• Eskola

Talde-dinamiketan diote oraindik ere, kirol modalitateen aulkeraketa sexu bidezko estereotipoen arabera egiten dela. Mutilen indarra, potentzia eta abiadura garatzeko kirolak erakusten zaizkiete eta nesken aldiz, koordinazioa nagusi den ekintzak. Horregatik ez da oso ohikoa boleibola aukeratzen duten mutilak edo errugbia aukeratzen duten neskek ikustea. Funtsezkoa da irakasleria sexu-estereotipoak apurtzen joan behar den kontziente izatea.

Bestetik, egungo eskola kiroleko lehiakortasuna bigarren maila batean egon beharko litzateke, ondo pasatzea, trebetasun fisikoak eta lankidetzaren eta solidaritatea balioak garatzea lehentasuna izanik. Irakasleria helburu hauek lortzen saiatu beharko litzateke.

Azkenik, ikastetxeek kirol jarduerari dagokienez aukera asko eskaintzen dituzten arren, uste dute haurrak ez dutela inon seriotasunez konpromezua hartzen. Gainera, gurasoek onartzen dute jarduera bat utzi eta beste batean hastea, oraindik kirol denboraldia amaitu ez arren.

• Familia

Familia, batez ere gurasoak, haurrek harremana duten lehen mailako eredu soziala dira, beraz, funtsezko papera dute seme-alaben jarrera, gustu eta balioen



garapenean. Familietan mutilei eta neskei ez zaie berdin tratatzen, izan ere, mutilei errazago onartzen baitaie ikasketak eta kirola batera egitea; inkontzienteki uste da mutilel zerbait lortu dezaketela esperientzia horietatik, aldiz neskekin, ez da hori gertatzen; ez da ezer espero.

Baita ere askotan amek lesioekiko azaltzen duten beldurra aipatzen dute; alabek hezur bat hausteko beldurra dute, baina semeekin ez zaie hori gertatzen. Jarrera horiek alabei transmititzen dizkiete konturatu gabe eta askotan errepariak sorrarazten dituzte alabengan.

Gurasoek batzuetan, batez ere aitak, oso zorrotzak dira semeekin; taldekideekin edo arerioekin alderatzen dituzte, partidetan garrasi egiten diete eta garaipenarekin estutzen dituzte. Garrantzitsua da adin horietan kirolaren balio erreala transmititzen jakitea eta hurrek galtzea bizitzako beste ikaskuntza bat dela ulertzea. Halaber, mutilen partidetara neskenetara baino guraso gehiago joaten direla diote, eta honek ere eragina du neska bakoitzak kirolari ematen dion garrantzian.

TaÑde-dinamiketan diote askotan, kirol batean onak diren neska-mutilei animatzen zaiela jarraitzea (esaterako, elkarteetan egiten diren hautaketak horren adibide dira) eta uste dute aukeratutako kirol modalitatea eta sexua edozein izanda ere, pertsona orok izan beharko lituzkela kirol-ohiturak.

• Lagunak

Izugarrizko eragina dutela uste dute. Txikiak direnean murilek kirolaren inguruan egiten dituzte lagunak eta ondoren, zaharragoak direnean plan askok kirolarekin zerikusia dute; esate baterako palan jokatzeko edota futboleko partida bat antolatzea. Ez dute arazorik izaten kirola egiteko norbait topatzeko.



Aldiz nesken kasua oso bestelakoa da. Kirol heziketa egitura antolatuarekin erlazionatzen dute, hortaz, harreman hori apurtzen denean (ikastetxe edo elkarte), kiroldegiko ikastaro batean izena emateko joera edo lagun batekin ibiltzeko gelditzeko joera dute. Baina oso gutxitan antolatzen dira nesken partidak.

Lagunekin egon nahi izatea neskek kirola uzterakoan maiz aipatzen duten arrazoietako bat da, baina talde-dinamiketan hori aitzakia dela diote. Askotan institutuan hasten deneko moda bat besterik ez da eta mutil-lagunaren iritziarekin zerikusia ere badu; neska batzuek danerako denborarik ez dutela esaten dute eta bai eta mutil-lagunarekin egon “behar” dutela ere. Boleiboleki jokalariek dioten moduan...”horrelakoak gera emakumeak, gure gauzak uzten ditugu besteekin egoteko”.

• **Rolen esleipen soziala**

Hautzarotik sexu bakoitzak izan behar dituen rol sozialak markatzen dira: gizonak indartsuak, kirolariak, ausartak... izan behar dira, eta emakumeak sentiberak eta zaintzaile onak. Familiak ere zerikusia du rol hauen garapenean, izan ere, sexu bati edo besteari oparitzen zaizkion jostailuak ezberinak dira (baloiak edo mugimendua behar duten jostailuak mutilei eta panpinak edo sukaldeak neskei).

Gizarteak orohar familiako eta etxeko ardura gehiago esleitzen dizkie emakumeei; emakumeek ez dute sekula mutilek haina denbora librean izan. Gaur egun aurrerapausoak eman diren arren, bikote gazteen artean neska da etxeko eta zainketako zama handienak dituen; lana egin ondoren gehienetan etxean geratzen da, bikotea kirola egitera joaten den bitartean.



• Komunikabideak

Komunikabideetan emakume kirolarien eredu falta izugarria dago, izan ere, berri eta irudi gehienak mutilen kirolari buruzkoak baitira. Elkarrizketatutakoen hitzetan, “emakumeok ez dugu ezer ekoizten; ez itzulera ekonomikoa ez eta elkartearentzat ospea ere, hortaz, ez gara interesgarriak komunikabideentzat”. Eskuarki, emakumeak albiste izateko lorpen handia izan behar dute, adibidez, final bat jokatzera edo irabazteara. Neska gazteak hortaz konturatzen dira eta txikitatik argi daukate ezin izango dutela kirolean profesionak izan, beraz, denbora ikasketetan aprobetxatzea nahiago dute, etorkizunerako emankorragoa izango delakoan.

Honen harian, talde-dinamiketan Hernaniko Kronikaren lana goraiatu dute. Uste dute herriko nesken kiroleko berriak eta irudiak hedatzen saiatzen direla, baina jarrera hori jarraia izan beharko litzatekeela eta beste komunikabideetara zabaltzea beharko litzatekeela diote.

• Erakundeak

Erakundeek ezinbesteko lana egin dezakete biztanleria guztiarentzat kalitatezko eta berdintasunean oinarritutako kirol jarduerara erdiesteko dauden oztopoak gainditzeko. Elkarreei diru-laguntzak emateko, instalazioak banatzeko, eskola kiroleko programa diseinatzeko eta arduradunek prestakuntza egokia izateko, Hernaniko UKPren politikak funtsezko tresnak bihurtu beharko lirateke. Honek guztiak emakume eta gizonen berdintasuna bermatzen duen kirol sistema bat lortzea ahalbidetuko luke.



5 ONDORIOAK

Hernaniko herrian kirol jarduera asko dago, baina oraindik ere, kirola berdintasunean egiteko oztopoak daude. Halaber, egungo kirol eskariari egokitu beharra duten beste zenbait aldagai aipatu behar dira.

Jarraian Hernaniko kirol arloan egindako diagnostikoaren ondorio nagusiak azaltzen dira.

Udal Kirol Patronatua (UKP)

UKPko pertsonalean emakume gutxi dago erabaki eta zuzendaritza postuetan. UKP osatzen duten 46 pertsonetatik 21 emakumeak dira eta 25 gizonak, baina emakumeen %66 kirol eta garbiketa zerbitzuko enpresek azpikontratatuta daude. Azpikontrataturako gizonen ehunekoa berriz %36 da. UKPko egitura osatzen duten gizonen %60 zuzendaritza politikoan daude edota bertako behin betiko langileak dira.

Hernaniko herriko kirol instalazioak onak dira, baina egungo eskariari aurre egiteko ez dira nahikoak. Badaude zenbait instalazio, konponduz gero probetxugarriak izan zitezkeenak, besteak beste, Tilosetako frontoia eta Gay-Mureko pista balioanitza estaltzea. Halaber, ibiltzeko edo korrika egiteko erabiltzen diren inguruko bideak argiztatu beharko lirateke (Osinaga, Ergobirako bide zaharra, e.a.).



Kiroldegiak traba arkitektoniko asko ditu ezintasun fisikoak dituzten pertsonentzat; beharrezkoa da sarbideak eta barruko mugikortasuna egokitzea pertsona hauek sartu ahal daitezen. Halaber, eraikinean igogailu bat jartzea egokia litzateke, batez ere, kafetegi eta igerilekuetako eremutik atezaintzako eremura. Aldagela zaharretako komunak eta lurra konpondu egin behar dira eta aldagela berrietan dutxetan zapatekin sartzea debekatzeko araudia ezarri beharko litzateke.

Instalazioei dagokienez, erabilerarako abonatuak eta elkarteen arteko banaketa aipatu behar da. Egun aurkako ikuspegiak daude UKP eta kirol elkarteen artean, beraz, beharrezkoa da erabiltzaile guztien elkarbizitza, koordinazioa eta gogobetetzea ahalbidetuko duten komunikazio bideak sortzea.

UKPko aurrekontuaren %5 elkarteei emandako diru-laguntzak dira. Kopuru honen %46 Zubipe eta Landareko instalazioak kudeatzeko hitzarmenetan gastatzen da. Diru-laguntza irizpideak, lizentzia kopuruari, kategoriari eta kirol-mailari puntuazio orokorrak emanez ezartzen dira. UKPk elkarteetan emakumeen kirola sustatzeko irizpideak ezartzeko eskuduntza du, beraz, nesken lizentzia edo taldeengatik puntuazioa areagotzea haztatu beharko litzateke.

Bestetik, elkarteek diru kopuru oso bat jazotzen dute, beraz ez dakigu nola banatzen den talde eso kirolarien artean. Diru-laguntza horien erabilera ezagutzea egokia izango litzateke elkarteek dirua ez dutela emakume eta gizonen arteko desbersintasan areagotzeko erabiltzen ziurtatzeko.

Azkenik, UKPren dokumentuetan hizkuntzaren erabilera ez sexista egiteko esfortzua egin den arren, idatziek kontraesan ugari azaltzen dituzte, hortaz, hizkuntza eta irudiak berrikustea gomendagarria litzateke.



Partaidetzako kirola

Hernaniko biztanleriaren %36,6k UKPn abonua du. Abonuen %51 emakumeenak dira eta %49 gizonenak. Abonu motari dagokionez, %77 familiakoak eta %23 bakarkakoak dira.

Kiroldegiko sarreraren erregistroan 11-20, 31-40 eta 41-50 urte tartetako jendea da nagusi, azken bi urte-tarteetan emakumeen sarrerak gizonenak baino askoz gehiago izanik.

Emakumeek gutxi gora behera UKPko jarduera guztietan parte hartzen dute. Inskripzioen %100etik %79 emakumeak dira. Emakumeek gehien egiten dituzten ekintzak (%31), pilates (%19), hirugarren adineko gimnasia (%14) eta spinning (%13) dira. Gizonek ohitura gehiago dute norbere kontura gimnasia joateko, baina ekintzetan ere parte hartzen dute, hain zuzen, spinning (%36), mantentze-igeriketa (%19), hirugarren adineko gimnasia (%18) eta y karate (%17) dira gehien egiten dituztenak.

Kiroldegian emakume gehien dauden jarduera aerobica da (237 emakumeek eta 9 gizonek egiten dute), eta ondoren, pilates (140 emakume eta 7 gizon) eta hirugarren adineko gimnasia (107 emakume eta 28 gizon).



Emakume gehienek ekintzak goizez egiten dituzte, gizonek aldiz, gauez (arratsaldeko 19etatik aurrera). Gizon zein emakumeek astean hiru egunez egiten dituzte jarduera hauek.

Erabilera libreko instalazioei dagokienez, sauna kenduta beste guztiak, hots, gimnasioa, frontoia, pista balioanitza eta squasha, gehien bat gizonek erabiltzen dituzte.

Azkenik esan behar da, Hernanin jende askok kirola bere kontu egiten duela. Gehien egiten diren jarduerak ibitzea, korrika egitea, bizikletan ibiltzea, palan jokatzera, mendira joatea eta eskalatzea dira.

Errendimenduko kirola

Guztira 1.248 pertsonak dute lizentzia Hernaniko elkarte batean, 222 emakumek eta 1.026 gizonen. Orohar Hernaniko biztanleriaren %7 federaturik dago. Kontutan izan behar da emakumeen lizentzien 107 (ia guztien erdia) eta gizonen 268 mendiko lizentziak direla.

Igeriketa eta gimnasia erritmikoko elkarteetan izan ezik, beste guztietan emakume baino gizon gehiago dago; tiroa, errugbia, arrauna, areto futbola, saskibaloia eta xakeko elkarteetan ez dago emakume bakar bat bera ere.



Emakume gehienak mendian (%49), futboleak (%15) eta boleiboleak (%9) federatuta daude, aldiz gizonak ehiza eta arrantzan (%30), mendian (%26) eta futboleak (%14).

Hernanin taldeak dituzten zazpi taldeko modalitateetatik emakumeenak soilik waterpolon, boleibolen eta futboleak daude. Halaber, elkarteetako zuzendaritza gehienak gizonak osatzen dituzte.

Emakumeek lehenago uzten dute kirola gizonen baino eta elkarteetan diskriminazio egoerak bizitzen dituzte esleitutako instalazio, entrenamendu eta partidetakor dute, harropa eta entrenatzaileen faltari dagokionez.

Eskola kirola

2006/2007 denboraldian guztira 614 hurrek parte hartu dute Hernaniko eskola kiroleko programan, horietatik %56,7 neska eta %63,8 mutilak izanik.

Kategoria guztietan mutilen lizentzien kopurua nesken baino handiagoa da. Partidetakoko indize handiena alebin mailan aurkitzen da (123 neska eta 140 mutil) eta datuek beherakada handia azaltzen dute alebin kategoriatik infantilera (57 neska eta 60 mutil). Hala eta guztiz ere, kontutan izan behar da mutil asko jada elkarteetan jokatzeko ari direla federazio-lizentzia batekin (futbola, pelota, e.a.). Adin honetako (hamalau urte) kirol eskaintza asko hobetu den arren, nesken lizentziak askoz urriagoak da mutilentzat baino.



Alebin mailan neskek gehien aukeratzen dituzten kirol modalitateak futbola, boleibola, saskibaloia eta pala dira, mutilek aldiz futbola, saskibaloia eta pelota nahiago dute. Eskola kiroleko programan neskek saskibaloian jokatu dezaketeen arren, egun ez daukate eskaintzarik federazio mailan. Infantil mailan neskek zein mutilek gehien aukeratutako kirolak errugbia, boleibola eta futbola dira.

Egungo eskola kiroleko programatik zenbait alderdi azpimarratu behar dira. Batetik, kirol modalitateen aukeraketa oraindik sexu-bidezko estereotipo sozialen arabera egiten dela eta zenbait kirolek lehiaketari gehiegizko garrantzia ematen dietela. Bestetik, begiraleek prestakuntza gutxi dute eta lana hau profesionalizatzeko ahalegina egin beharko litzateke ikaskuntza pedagogikoa eta lehiaketa baino garrantzitsuagoak diren balio sozialen garapena bermatzeko.

Azkenik, esan behar da ezinbestekoa dela gurasoak norbere seme-alaben kirol jarduerarekiko jarreran eta eskola kiroleko programan duten eraginaz konturatzea.

Kirol jardueraren uzteari dagokionez, eskolak, familiak, lagunak, rolen esleipen sozialak, komunikabideek eta erakundeek eragin handia dute neskek kirola, mutilek baino lehenago uzteko. Halaber, aldagai hauek guztiek nesken kirol uztea mutilena baino onartuagoa egoteko eragiten dute.



6 BIBLIOGRAFIA

B.O.P.V. (1998). *Ley 14/1998 de 11 de junio del Deporte del País Vasco*, 25 de junio, nº 118.

B.O.P.V. (2005). *Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres*, 2 de marzo, nº 42.

B.O.G. (2006). Anuncio del Patronato Municipal de Deportes del Ayuntamiento de Hernani: *Bases específicas para conceder subvenciones para actividades deportivas*, 3 de julio, nº 125.

EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO (2003). *Plan Vasco del Deporte 2003-2007*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.

FONTECHA MIRANDA, M. (2003). “Coeducación en el deporte. Un objetivo aún lejano”, en *Revista Emakunde*, nº 51, pp. 10-13.

HERNANIKO UDALA (2003). *I Plan para la Igualdad entre Mujeres y Hombres 2003-2005*. Hernani: Hernaniko Udala.



Aztertutako web orriak

www.azeribila.com

www.buruntzaldea.com

www.emakunde.es

www.hernani.net

www.kirolzerbitzua.net/ekipamenduak

www.kirolzerbitzua.net/klubak

www.kronika.net

http://manista.blogs.com/bitacora/2004/12/emakumea_pilota.html



I ERANSKINA: Talde-Dinamiketako partaideak

- 1 Dinamika: Ibiltzera joaten diren emakumeak

Partaideak	Jatorria edo kirolarekin zerikusia
11 Emakume	Beren kabuz oinez ibiltzera joaten dira

- 2 Dinamika: Errendimenduko kirola

Participantes	Jatorria edo kirolarekin zerikusia
2 Emakume	C.D. Hernani (Pelota)
2 Emakume	C.D. Hernani (Futbola)
Emakume 1	C.D. Hernani (Atletismoa)
Emakume 1	Hernani Kirol Elkarte (Waterpoloa)
2 Emakume	Hernani Kirol Elkarte (Boleibola)

- 3 Dinamika: Partaidetzako kirola

Partaideak	Jatorria edo kirolarekin zerikusia
2 Emakume	Suelen ir a correr y usuarias polideportivo
Emakume 1	Atleta y usuaria polideportivo
Emakume 1	Montañera y usuaria polideportivo
Emakume 1	Usuaria polideportivo



Hernaniko kirol arloaren Hobekuntza Plana



AURKIBIDEA

1. Udal Kirol Patronatua	93
2. Partaidetzako kirola	95
3. Errendimenduko kirola	96
4. Eskola kirola	97
5. Adierazleak	98



1 UDAL KIROL PATRONATUA

1.1 Hernaniko instalazioak eta kirol azpiegitura hobetzea

- 1.1.1 Egungo instalazioak hobetzea erabilera aukerak areagotzeko
- 1.1.2 Kirol jardueretarako erabiltzen diren beste naturako espazioak edo espazio fisikoak egokitzea
- 1.1.3 Kiroldagiko traba arkitektonikoak deuseztatzea

1.2 Kirol-sistemako maila guztietan emakumeen partaidetzaren sustapena bultzatzea

- 1.2.1 Elkarreei diru-laguntzak emateko balioespen irizpideak aldatzea

1.3 Elkarreetan emakumeenganako diskriminazio modu guztiak erazte

- 1.3.1 Xede- diru-laguntzak ezartzea elkarreetan diskriminazio egoerak zuzentzeko neurriak izateagatik
- 1.3.2 Diru-laguntzetan penalizazio irizpideak sartzea, jokaera diskriminatiboak dituzten entitateentzat



1.4 UKPko dokumentu eta irudietan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatzea

1.4.1 UKPko dokumentuetako testu eta irudiak berrikusi eta aldatzea

1.4.2 UKPn lan egiten duten pertsonen prestakuntza ematea

1.5 Herriko kirol agenteekin komunikazio bide egonkorak sortzea, koodinazioa, elkarbizitza eta gogobetetze maila areagotzeko

1.5.1 Udal Kirol Kontseilua sortzea

1.5.2 Kontseiluan Hernaniko kirol arloko diskriminazio egoerak salatu eta berdintasunaz artatuko den emakumeen kirolaren arduradun bat izendatzea



2 PARTAIDETZAKO KIROLA

2.1. Kiroldegiko erabiltzaileen gogobetetze maila areagotzea

2.1.1 Denboraldi bakoitza amaitzean galdeketa bat pasatzea

2.2. Emakumeen kirol partaidetza dibertsifikatu eta bistaratzea

2.2.1 Herrian egiten diren herri krossetako batean kategoria mistoa sortzea

2.2.2 Emakumeen kirolaren egun bat antolatzea

2.3. Seme-alabei ikastaroetara laguntzen dieten amen artean kirola egitea sustatzea

2.3.1. Inskripzioak egiten direnean kanpaina espezifikoa egitea kolektibo baten eta besteren ordutegiak sinkronizatuz



3 ERRENDIMENDUKO KIROLA

3.1. Elkarteetan emakumeen partaidetza maila areagotzea

- 3.1.1 Federazio-mailako kirol eskaintza eskolako kirol eskaintzarekin koordinatzea kirol-jarraipena ahalbidetzeko
- 3.1.2 Emakumeentzat kirol eskaintza areagotzea

3.2. Emakumeen errendimenduko kirola sustatzea

- 3.2.1. Urtero Hernaniko emakume kirolari hobereana saritzea
- 3.2.2. Urtero kirol arloan emakumeen parte hartzea bultzatzen ahalegintzen den pertsona, elkarte edo erakundea saritzea



4 ESKOLA KIROLA

4.1. Eskola kiroleko programaren kalitatea areagotzea

- 4.1.1 Begiraleak profesionalizatzeko prozesua abian jarri, begirale adituak kontratatuz edo egungoari prestakuntza emanaz
- 4.1.2 Kirol topaketetako jokabide arauen dekalogo bat jasotzen duen eskuliburu bat egitea gurasoei eskola kirolean duten eginkizunaz sentsibilizatzeko
- 4.1.3 Urteko festa bat egin eskola kirolean parte hartzeagatik sari-sistema homogeneoa ezarriz



5 ADIERAZLEAK

EREMUA	HELBURUA	EKINTZA	ADIERAZLEAK
UKP	1.1	1.1.1	Egokitutako instalazio kopurua
		1.1.2	Egokitutako espazio kopurua
		1.1.3	Deuseztatutako traba kopurua
	1.2	1.2.1	Helburu horrekin aldatu diren edo ez ikusi
	1.3	1.3.1	Irizpideetan ildo espezifikoak ezarri diren edo ez ikusi
		1.3.2	Penalizazio kopurua eta hauen zenbateakoa
	1.4	1.4.1	Berrikusi eta aldatutako dokumentu kopurua Aldatutako irudi kopurua
		1.4.2	Trebakuntza ikastaroa egiten den ala ez
	1.5	1.5.1	Udal Kirol Kontseilua sortzen den ala ez
		1.5.2	Ordezkaria izendatzen den ala ez
Partaidetzako kirola	2.1	2.1.1	Jasotako galdeketa kopurua inskripzio kopuruari dagokionez
	2.2	2.2.1	Kross batean kategoria mistoa sortzen den ala ez
		2.2.2	Egun hau ospatzen den ala ez
2.3	2.3.1	Kanpaina egiten den ala ez Ordu-tegi berean ikastaroak eskaintzen diren ala ez	
Errendimenduko kirola	3.1	3.1.1	Kadete mailan eskaintzen diren ekintza kopurua eskola kiroleko eskaintzari dagokionez
		3.1.2	Lehen aldiz nesken lizentziak dituzten modalitate kopurua
	3.2	3.2.1	Herrian sari hau sortzen den ala ez
		3.2.2	Herrian sari hau sortzen den ala ez
Eskola kirola	4.1	4.1.1	Kontratutako pertsonal adituaren kopurua
		4.1.2	Liburuxka egiten den ala ez
		4.1.3	Sari homogeneoak eta urteko festa egiten den ala ez






OHARRA: Kontutan izan behar da adierazle hauek ekintza bakoitza ebaluatzen ari direla, hots, Plana burutzen den ala ez, eta ez Plana beraren emaitza. Ekintza hauen ondorioa ezagutzeko Planaren ebaluazio espezifikoa egin beharko litzateke.



Proiektuan parte hartzeagatik: Maixi Irastorza, Juani Gómez, Aitziber Salaberria, Eva Esnaola, Maider Oilokiegi, Eva Pastor, Leire Lukas, Garazi Jauregi, Garbiñe Tijero, Garbiñe Etxeberria, Idurre Sanz, Itxaso Etxabe, Izarne Oiarzabal, Alazne Benitez, Garoa González, Lide Egaña, Ina Olabide, Amaia Berdonces, Miguel Ángel Garin, Josetxo Etxeberria, Arantxa Urbietta, Xabier Gabiña, Ainhoa Makazaga, Ander Urreta, Irati Galarraga, Beñat Barrio, Iñaxi Zubillaga, Marisol Romero, Lorea Garbizu, Mari Ibarra, Juani Lozano, Maitxu Goenaga, Amelia Matallanes, Angeli Izagirre, Ambrosia Esnal, Pilar Erasun y Maria Teresa Beraza.





	Portuetxe 45A, 4º-2 20.018 Donostia
	943 31 70 38
	943 31 70 48
	info@aventoconsultoria.com
	www.aventoconsultoria.com